

# Zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## Joan Mari Torrealday

✿ Edozein txorakeria ez da iraultzaile

✿ Gaur ezkerretik ez baino eskuinetik datorkigu arriskua

Oso ezaguna da Joan Mari euskaldunon artean. Aspaldidanik dago zeharo emana euskal arloari. Askok irakurri ahal izan ditu beronen lanak «Elgar», «Egan», «Anaitasuna» eta «Zeruko Argia» aldizkarietan.

JAKIN aldizkariaren zuzendari izan zen garai batean. Bilerak eta hitzaldi asko egin zuen garai hartan Euskal Herrian, han eta hemen. Orduan jendearengandik jasotako galderen erantzun bial joana dugu ikastera Frantzia aldera.

Argitara berria du IRAULTZAZ deituriko liburu berri bat JAKINen. Gai interesgarria benetan.

Oporralditxo bat gure artean igarotzen ari dela eta liburuen egielarengana jo dugu. Sustrai sakonetan oinarritu behar dugu gure ekintza, bestela Joan Marik dioen bezala «jokabide desagile asko ez dira iraultzaile».

—Argitara berria duzu IRAULTZAZ deituriko liburu berri bat JAKINen. Zenbat denbora eraman dizu liburua moldatzeak?

—Nere ikasketako lana izan dearlik ez da aisea jakitea. Bi urtetan ibiila nauzu holatsuko gaiak ikasten Frantzia aldetik.

—Eta nolatan hasi zinen hortaz?

—JAKIN aldizkaria debekatu eta Joseba Intxausti JAKINen ilburuez arduzteko etorri zenean atera nintzen ni ikastera. Zer estudiantu, ordea? Hein handi batetan, JAKINen zuzendaritzan, bileratan eta hitzaldiak ematen ibiliz ibiliz euskal herrietan neregatatu nituen galderak erantzutea zen orduan neretzako estudiantea. Galderak bada ez ziren nereak bakarrik, gazte-andana batenak ere bai.

—Iraultzaz ari zara liburuan. Politika aldetik ala filosofia aldetik aztertzen duzu iraultza?

—Azterketa dela ez ahantz. Eta politika iritziak eduki arren politikologoa ez naizenez gero, eta fedea (eta fedea) eduki arren fedegizona ere ez, gizarte-filosofia aldetik arakatu nahi izan dut gaia. Eta hori sinpatia handiarekin eta izpiritu kritikoa batekin. Iraultza, pentsaera eta mundu-ikusera den aldetik aritu izan naiz. Iraultzarekin batera europar pentsaera modernuaren lerro nagusiak ikusi ditut. Progresoa sinismena, zientziaren guzi-ahatasuna, gizonaren nagusitasuna, arrazoimenaren garaitzapena, etc., etc. ardatz gisa dituen kultura gurea da, Europakoa. Iraultzaren pentsamentua ere hortxe dago. Horregatik esaten du Carr-ek (ustez) Europa dela iraultzaren ama. Eta pentsamolde hau, neurri handi batetan, ondo dakigunez, XVIII-XIX mendetan eratu zen. Eta komentaturik nago ni gauza askotan eta askotan mende horien jarraitzaile hutsak garela. Horrek harritu nau. Eta horregatik esan dut liburuan, etorkizunaren guraso baino gehiago lehenaren seme garela. Mendebaleko pentsaeraren lurpea arakatzeko argigarri izan da neretzako, gaurko mugimendua situatzeko eta ulertzeko argigarri izan da neretzako, gaurko mugimendua situatzeko eta ulertzeko biziki lagungarri. Ez nago horren seguru liburua irakurleari laguntza bera eskaini dezaiokeenik, agian sintetikoegi eta laburregi bait dago hori dena.



Joan Mari TORREALDAY

—Euskal Herria oso gutitan aipatzen duzu. Nola egiten duzu liburu honek gure egoeraz duen lotura?

—Aipamen horien beharrik ez dut ikusi, liburu osoa hortaraturik zegoenez gero. Eta bestalde, guraizen beldur beti izan naiz ni. Gure egoerari egokitzen ote zaion? Nere ustetan bai, eta zuzenki lotu eta egokitu ere. Esango dizut nola. Liburuak hiru joera hauei erantzun nahi lieke:

—Kontsumoko gizarte honek lortu nahi duen iraultza izanaren eta izanaren antzutu nahiari. Iraultza, pentsatze, edozein aldaketa azkar eta aldakuntza luzea da. Kontrako erantzunez, liburu osoa dator.

—Edozein haustura eta deuseztapen erreboluzioztatzen eskuin zakartu eta ezker txoro jakin bati, iraultza askoz ere sakonagoa eta esanahitsuagoa dela frogatuz.

—Iraultza borroka-klase batetara (eta hain zuzen klase-borrokarari) mugatu nahi dutenei esanez iraultza jokabide eta eremu zabalago bat hartu behar duela eta haaxel hartzen ari dela herri hazietan.

—Eta zer da zuk zeuk proposatzen duzuna? Bada biderik? Bada joerarik? Bada soluziobiderik?

—Nere asmoa irakastea ez baino erakustea izan da, hori batetik. Eta bestetik, holako liburu baten deus handirik ez liteke esan puntu hortaz. Halere, bide bat aspimarkatu nahi izan dut, guti barru nagusituko dena, nere ustez. Labur esanik: bizi dugun egoeratik, konkretutik abiatzen den bidea. Errealidadea teoriari egokitu nahiz eta ezinik gabiltzan susmoa dut askotan. Alderantzira behar luke izan. Euskal Herria zer ari zaigu gertatzen? Horixe, printzipio orokor bakar batekin gure egoera osoa esplikatuz (eta horren arabera irtenbidea bilatu, nes-

## NON ZER

- IKASTOLAREN ETSIAK  
Akaitz ... .. 3 garrenean
- SORTALDE GERTUKO HAIZEAK  
Iza ... .. 5 garrenean
- SUMMERHILL-GO ESKOLAREN  
SORTZAILEA HIL DA  
Dorrnsoro ... .. 6 garrenean
- DONOSTIAKO ZINE JAIALDIAREN  
GAITZAK  
Zalakain ... .. 7 garrenean
- IKASTOLAREN INGURUAN  
Aranberri ... .. 10 garrenean

ki) nahi dela. Datoekin pentsatzen has gaitzen orduak jo du eta gure herrian bertan bizi ditugun kontradizio guzietatik abia gaitzen. Bizi-inguruaren, ekologiaren, agintearen arazoketak, denak dira iraultza-gai.

—Autogestioaz ere mintzo zara.

—Iraultzak, sinesgarri izan nahi badu, alternatiba bat eskaini beharko du. Oro har, autogestiozko gizarte lizateke neretzako alternatiba presenta lezakeen bakarra. Autogestioa, zentralismoaren antitodoa duzu, bulegokrazia, mandarinato eta jauntxakeria guzien aurkakoa. Autogestioak pertsona eta taldea egin nahi ditu erabakigune. Autogestioa, demokrazia direktoaren egiaztatzea da, horra. Askatasunak oro salba dezakeen sozialismoa, autogestiozko sozialismoa da, nere iritzian. Bere posibilitasunak beste eztabaida bat merezi luke. Bego hortan oraingoz.

—Zer iritzi duzu Euskal Herriko iraultzaz?

—Bide luzea egin duzu. Bagabiltzala, ibiliaz bakarrik erakus daiteke. Hemengo iraultzak ez du jandak ortodoxia baten mantupean egoteagatik bere burua zuritzen eta justifikatzen ibili beharrik. Teoriari errespeto pitin bat galtzeak on egin dizaiok mugimenduari. Badut esperantza, ezker zentzuzko baten irrikia. Ezker finkatu batek izango luke etorkizunik.

—Zer iritzitan daduzkazu Euskal Herriko iraultzaileak?

—Bestez hitzegitea ez da on. Onartzen dudana askoz ere gehiago izanik, «iraultzaile» deituriko zenbaiten joera bat edo beste salatu nahi nuke. Edozein txorakeria ez da iraultzaile. Jokabide desagile asko ez dira iraultzaile, eta bai nihilista. Gero, politikan moralezko kategoriak erabiltzea politika eskasa da. Gaur, gure giroan, «burges txikitat» bat salatzeak zer besterik adierazten du? Eta ideiei gogozkielarik, garbitasun ezinezko baten alorra bihurtu dugu politikagintza.

Halere, gauza bat argi geldi bedi. Nere ustez, gaur ezkerretik ez baino eskuinetik datorkigu arriskua. Iraultzaren kontrakoek, eta areako kontrairaultzaileek, horiek ematen didate neri beldurra.

—Eta bukatzeko. Esaiguzu zerbait zure asmoez. Orain berriz Parisera zoaz baina, hona etortzerakoan, zein dira zure asmoak?

—JAKIN taldera etorriko naiz. Dakitezenez, euskal kulturagintzan lanegiteko hautua aspaldidanik egina dut. Eta hain zuzen euskal kulturari dagokionez badut, denen gainetik, beste gogo bat ere. Soziologia ikasten ari naizenez gero, bide hortatik euskal kulturaren azterketa batzuk hartu ditut gai bezala. Hasteko, euskal liburua aztertu nahi nuke, oso sinpleki. Aldizkariaren bidez irakurleari dei egiteko esperantza dut, nor duten irakurle eta zer nahi duten irakurleek, argitaretxe beraiek ere hobekixeago jakin ahal dezaten. Zenbakiz eskas dabilen euskal kulturak bere burua zenbakitan disekaturik ikusteko oltzarik ez ahal du izango!

—oOo—

Eskerrik asko, Joan Mari. Sasi-maixu asko da gure artean. Jarrai ikasten. Gauza asko dago soziologia alderditik aztertu beharrekoa. Sakon aztertu beharrean aurkitzen gara gure iritziak, ustek, jokabideak, lanak eta abar.

Eta ez ahazt ZERUKO ARGIAko idazle eta irakurleekin.

ERRIALDE

# BERTSO BERRIAK

## Allenderen alargun eta Txileri

I

Zuen errian zer gertatu den nik emen jakindakuan bertso batzuek jartzeko luma laster artu det eskuan. Zure biotza gaur egongo da penakin ia lertuan. Gurutzetxo bat guztiontzako bada gabiltzan lekuan. Pazientzian eraman zazu Jesusen izen santuan.

II

Zuk motiboak badituzu bai triste egoteko aña, gizona il da Txileri berriz moztu diote mingaia. Gero santutzat beren buruak jo dituzte alajaiña. Gezurra dana egi biurtu naiean dabilta baiña, denboraz, noski, izango dute merezi duten ordaiña.

III

Txiletarraren naia izan da oso denbora gutxiko, nik banakien kapitalistak etziotela utziko. Auek ez dute langillearen alde legerik jarriko, baiña badakit ez dezutela inola ere etsiko, bestela beintzat galdu zerate zeon bizitza guztiko.

IV

Agintari bat langillearen alde emen jartzen bada berealaxe izango ditu berak amar milla traba. Allende jauna zerbait asi zan baiña etzioten laga. Txuri ta gorri, ori ta beltza, laikoa edo kristaua bi dituanai bat emateko alperrik esatea da.

V

Allende jauna langillearen alde jarri zan orduan berealaxe tratatu zuten pixti tzar baten moduan. Jesus maitea, ark zure itzak eduki zitun goguan, zuzentasuna ta justizia izan zitezen munduan, bi zituanak bat emateko zerorrek esan zenduan.

VI

Asmo on oiek Allende jaunak artu zituan gazterik, langillearen joan etorriak ez diralako uskerik. Mundu guztian neretzat etzan gaur agintari oberik, bere izenak ez du merezi gorantza gabe uzterik, etzualako lurrean egin Kriston esana besterik.

VII

Txile aldean zer gertatu dan guk ez jakinarren klaro zerbait gogorra izandu dala oso sinistuta nago. Ezker jendea artua dute inoiz baiño okerrago. Talde ortatik ia geiena giltzaperatua dago. Len erdipuerdi baldin bazeuden orain askoz okerrago.

VIII

Ur zikiñean pozez ibiltzen zaizkigu arrantzaleak, naiz langilleen odolarekin berriro busti kaleak. An ez dituzte irakurriko nik jarritako aleak, baiña alere jakin bezate bertako indar-zaleak, aizea ereiten duenak biltzen ditula denboraleak.

IX

Petxua jo ta damu det Jauna esanarekin bakarrik seguru egon ez da zuzentzen guk egindako okerrik. Beste munduan ez dute artzen urrerik eta zillarrak, Kriston aurrean ez dutelako arrokeriek indarrak. Lagun urkoa maite ez badu beste guztiak alperrik.

X

Txile maitea, laguntzen dizut nik eramaten lutua, baiña berriro aurki joko du askatasunen tutua, naiz zu gaur egon beso ta anka soka gogorrez lotua. Mundu guztia zorionean daukazu konturatua il diran oien odolak ziur emango dula frutua.

MATXAIN

# Euskal Herri osoko, bigarren maillako, bertsolarien Txapelketa Idiazabalaren

(III-GARREN ZEPAI SARIA)

TXAPELDUN, OIARTZUNGO KOXME LIZASO

BIGARREN, ISASONDOKO JABIER ZEBERIO

Zorionez, urtetik urtera, Idiazabalaren jokatzeko dan Zepai Saria indartzen ari zaiugu. Orain iru urte jarri zan leenengo aldiz dalako Zepai Sari au. Urte artan, Gipuzkoako Goierriko bertsolari berrientzat bakarrik eratu izan zan. Ez ala joan zan urtean eta aurtengoa. Azken bi urte oetan, Euskal erri osoko bigarren maillako bertsolariarentzat jarria izan da eta, gainera, Txapelketa izenaz. Bi igandetan izan dira bertso saioak, au da, irailaren 23an eta 30ean. Bietan, goiz eta arratsalde izan dira alkar neurketak. Bai ala bear ere jokatzeko prestatu ziran bertsolari sailla ikusirik. Emeretzi guztira. Bada bertso sailla. Bertsolari oetatik, bat nafarra zan. Beste guztiak, gipuzkoarrak. Bi igandetan oso eguraldi txarra, Leenengoan, Aizkorri or agertu zitzaigun bere gaillurra mutur zuriturik. Bigarrenean, berriz, euri jasa ikaragarriak baiñan, alaz guztiaz ere, jende asko bildu zan Idiazabalaren. Naiz aterpe gabeke enparantzan jokatu, an egon zan jendea leengo esaera zarran on artuaz: «Eguraldi txarri arpegi on».

PARTE ARTU ZUTEN BERTSOLARIAK

Zaldibiko Iraola. Itziarko Ziolar. Idiazabalgo Etxaluze. Azpeitiko Zendoia. Berrobiko Muñoa. Idiazabalgo Goiburu. Brinkolako Iñaki Azarola. Azkoitiko Larrañaga. Isasondoko Zeberio. Oiartzungo Lizaso. Brinkolako Simon Azarola. Brinkolako Agirre. Lezoko Zabala. Ayako Otamendi. Ataungo Begiristain. Ezkioko Aranzadi. Mendaroko Manuel Loiola. Mendaroko Juan Loiola eta Errazkingo (Nafarroa) Argiñarena.

MAAIKOAK ETA GAI EMAILLEA

Aita Zavala, Fernando Arto-la «Bordari», Inozenzio Olea eta Luzio Gabiriak osatu zuten epai maia. Idiazabalgo Jesus Azurmendi izan zan gai emaille eta, berak esan zigunez, berak eta bere anaia bategen moldatuak omen ziran gaiak, opizioak, puntuak eta

abar. Azurmenditarrek lan egoki eta asko egin zuten. Zer esanik ez maaikoek. Gauzak zuzen eramaten naiko lan izango zuten. Denentzat gure zorionak.

LEENENGO IGANDEKO SAIOA

Txapelketa ontara emeretzi bertsolari etorri ziralako, goiz partean amar bertsolari jokatu zuten eta arratsaldean beste bederatzik. Goiz eta arratsaldeko puntuazio arturik, auek gelditu ziran urrenko iganderako: Iraola, Ziolar, Etxaluze, Zendoia, Muñoa, Goiburu, Azarola, Larrañaga, Zeberio eta Lizaso. Egun guztiko bertso onena botatzen zuanarentzat kopa bat zegoan eta bera Lizasok jasoa izan zan. Bertsolari gazteenarentzat beste kopa bat zegoan eta au Ataungo Begiristainek eraman zun. Lizasok kopa, puntua jarritako bertso batekin irabazi zuan. Oso bertso biribilla moldatu zuan.

BIGARREN IGANDEKO SAIOA

Illaren 30ean, irailako azken igandean, leenengo igandean klasifikatutako amar bertsolarien artean Txapelketa onen azkena jokatu zan. Goiz parteko eta arratsaldeko puntuazioak balio zuela. Gu ez gihan Idiazabalaren goizetik baiñan bai arratsaldean, Goizean oso saio bikaiña egin zutela esan ziguten Idiazabala iritxi orduko. Arratsaldekoa, geuk entzuna, ikusgarria izan zan. Berealaxen ikusten zan, beste bertsolarietaz ezer kendu gabe, Ziolar, Zeberio eta Lizaso oso argiak zeudela. Bai, ezkenean ala gertatu ere. Epai maaikoek, danen puntuazioa batu ondoren, erabaki au artu zuten: Lizaso eta Zeberio, biak berdin. Zeberio «kartzelara» eraman zuten eta Lizaso plazan gelditu zan. Leendabizi lau puntu eman zitzaizkion aiekin, zortziko txikian, bertsoa osa zezan. Ura bukatu ondoren, MINGAIÑARI iru bertso botatzeko agindu zioten epailarietaz. Lizasok bere lanak bukatzean ekarri zuten Zeberio eta, onek ere, lan berdiñari eldu bear izan zion. Bazan txaloea eta oiua eta goratu bearra. Biak oso ondo. Gure uestez, puntuazioan, ez zioten alkarri puska aundirik kendu. Erabakia au izan zan:

Leendabizi, Koxme Lizaso. Bigarren, Jabier Zeberio. Beste guztien berririk ez zuten eman maaikoek. Egun guztiko bertso ederrena, Ziolar-ek kantutu zuan eta kopa bat eman zitzaion oroigarri bezela. Leendak Lizasok txapela eta Zepai Sendiaren kopa jaso zituan. Zeberio, berriz, Aiuntamentuaren kopa. Erriak ere epailari egin bearra izan zuan. Ara. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probinzialak kopa bat eskeiñi zuan erriari geien gustatzen zaioren bertsolariarentzat. Ortarako, entzule guztien artean, jai eratzailleek, orri bana zabaldu zuten amar bertsolarien izenarekin. Botazioa egin zan eta kopa Idiazabalgo Goibururentzat izan zan.

AZKEN ITZAK

Bukatzeo auxe esan bear degu. Idiazabaldarrek andik eta emendik laguntza asko eta asko izan zuten. Merezi ere bai era ortako bertso jai aldi bat eratzeko. Laguntzaileen izenak ez ditugu esango. Bildur gera bat edo beste esan gabe utziko ote degun eta ez genioke inori miñik eman nai. Auxen esan ziguten Idiazabalaren: «Ibai-Ertz eskerrak eman, Zeruko Argiaren bitartez guri lagundu diguten denei». Ala egiten degu. Baita esan bearrean gaude inork uste ez zuen lana gure erriko Zeberio egin zuala ere. Ez degu goratzen erritarra dalako, ez. Merezi duelako bai. Beregan badu etorria, gatz eta piperra. Gainera oso plaza gizona degu. Pixka bat saiatzen bada, bertsolari ona izateko doaiak baditu. Ez degu beste itzik beretzat: Zorionak eta aurrera Zeberio! Beste guztientzat ere gure esku zartada beroenak. Zuek leengoan bezela jarraitzen badezue, guztion ongarri, badatoz bertsolari berriak gure euskera jasoko dutenak. Eutsi ekiñari eta beti aurrera, mutilok!

Eta, bukatzeo, au esan bear degu. Lizaso, Txapelketa au irabazi duelako, leenengo maillako bertsolarien artean sartzen da. Joan zan urteko irabazle, Gabiriko Igarzabalek, egin zuan bezela. Biontzako gure txalorik anaikorrenak. Zepai zanak lagundu bezaigu zeru gotik datorren urtean ere bere IV Saria ikusi eta entzuteko zoriona izan dezagun.

IBAI-ERTZ

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia


Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa. 422700 - DONOSTIA

## GIPUZKOA'KO LANTEGIAK AUERRERA ATERATZEN LAGUNDU

Gure eginkizunetan aundienetako bat, Gipuzkoa'ko lantegiak aurrera ateratzeko laguntza ematea da. Gure diru laguntzakin, Gipuzkoan lantegi asko zabaldu eta indartu egiten dira.

Diru laguntza au era berean, janari gai, etxegintza, burni, mikromekanika, argi indar eta elektronika lantegietara banatzen da... eta beste edozer eratakoentzat ere bai.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



# Zer zabilzate

Lehen ere egin izan du Joxe Azurmendik Euskal Erriaren egoeraz azterketa sakon eta egokirik. Orain bertan ere ezin eta bikainagoa egiten ari da. Dagoeneko iru idazlan argitara ditu hemen euskal gizarte hautsia izenburuaz.

Euskal Erriarentzat kaltegarri diren bi indar salatzen ditu ale hontako lehenengo orrian Torrealday-k.

Guk ere bide berdinetik joko dugu lantxo hontan.

Bada gure artean ezker euskaltzalerik. Baita eskuin euskaltzalerik ere. Baina abertzale zen zenbait ezker erdaltzale bihurtzen ari da eta, abertzale den zenbait eskuin erdaltzale bilakatzen ari da.

Gure artean nabarmena da "nazioartekotasunak" eraginik zenbait ezker usteko edo ezker txangoren buru-bihotzak, elburuak eta jokabideak noruntz begira dauden.

Nahigabe ala jakinaren gainean, ezarria dagoen nazio jakinari laguntzen diote, nazio hortako ezkerriari lagundu nahirik. Bi aho-ke labana da, ordea, hau. Ongarri auzorako, kaltegarri etxerako. Gure erriko ezkerza zatitzen du, gure erri borroka saihesten, eskuin zentzuduna ikaritzen eta erri indarra sakabanatzen.

Hain zuzen horixe nahi du agintean dagoen eskuinak. Beraz, erriari bere bizi nahia itoazten laguntzen dio "nazioartekotasunaren" izenean. Eskuin erdaltzaleak sortua, landua eta indartua dirudi ezker txango hauen jokabide honek. Ondo datorriko behintzat honelako jokabidea hemen. Eskuindar gertatzen da hauen jokabidea hemen. Agintedunen jokoan eta sareetan jausiak dirudite. Zerbaitegatik daude beste errialdetan baino gutxiago erasotua eta hemengo indarrak baino onartuagoak.

Baina bada gure artean abertzale dela uste duen beste eskuin bat ere joko berean erori dena. "Ez eskuintzat, ez arrazoikotzat, eta ez beharrezkotzat... onets nitzake, horiek ez dira eskuineko. Nire ustez, arrazoikotasun kategoria guzietatik kanpora gelditzen dira" (Azurmendik 552 zenbakian). Irrazionalak dira gure ustez.

Ezin dute irentsi euskaldun abertzale aurrerakoi eta ireki samarrik. 36an geratu zitzaizkien eriojua. Urte batzuk lehenagotik asi eta ordura arte egindakoa bakarrik da ona eta jatorra. Orduan sartu ziren iritziak, jokabideak eta aldaketak utsezinak eta behin betirakoak dira. Hauentzat ez da mundurik aldatu. Euskal Erriak behintzat ez du aldatu behar. Hauentzat 1865 garrenean asi zen Euskal Erria ez 1936garrenean osatu. Tarte hortako Euskal Erriari eutsi behar zaio. Eta berauk bakarrik dira tarte hortako Euskal Erria nolakoak zen esan behar dutenak Alderdiko beste askoren gainetik.

Jakina, badirudi, hauentzat etsaierik aundiena, Euskal Erria berjabetuz, osatuz eta gaurkotuz aurreratu nahi dutenak direla. Eta ekin diote borroka bizian ezker-abertzaleari eta eskuin eta zentzuzkoari.

Bereganatu dituzte dagoeneko aldizkari eta argitaldари batzuk. Ia eskuratutik dauka beste zenbait. Badute sarrera erdal egunkarietan ere.

Ahaleginak jo dituzte zenbait elkarte eta erakunde eskuratzen. Badirudi beraien eskutan ez dagoen guztia txarra dela. Eskuratu edo desegin, eta bestela, alde edo molde, beren tankerako eta moldekoa den beste berria sortu.

Oraingo ez dute beste eliza bat sortu beharrik.

Norekin elkartzen dira? Ustez inorekin ez.

Baina ondorioetan, lehen aipaturiko eskuin eta ezker erdaltzaleekin. Biek, euskaltzale aurrerakoiak zanpatu nahi dute. Honek ematen bait diots biei ere lanik asko.

Aztertzale den ezker txangoak, euskaltzale guztiak honelako eskuin itxu eta setatsu nahi ditu. Hori da gazteria ezker mota hortakoa egiteko biderik onena.

Eskuin mota honek ez du aztertzale den ezkerrik jotzen. Ezker guztiak zaku berean sartzen ditu. Eta edonor da ezker, hauentzat gero!

Ara nola biak, bakoitza bere aldetik, agintzen dagoen eskuin indartsuaren laguntzale bilakatzen diren. Biek, bai ezker txangoak eta bai eskuin zentzuzgabeak, euskal baratzean sortzen ari diren landareak moztuko edo moztaraziko dituzte.

Ba al dakizue zer zabilzaten?

## IKASTOLAREN ETSALIAK

Haurrak, batzuk lerroz lerro, sakabanaturik besteak, autobusetan urrutikoak, guztiak ikastolara bidean ikusten ditugunean, ideek multzoka oldartzen dute gure burua.

Harrigarria da, eta bidebatez pozgarria, horren giro aldrebe-sean ikastolak zutik irautea. Badu erakunde honek halako bizi nahizko barne-indar (herri-indar) kementsu bat. Zeri erantzuten dio, ordea, barne-indar honek? Gehienontzat, ezin bizitan dagoen euskal herrietasunari.

Euskal Herri xeheak, bere kontzientzia apurrean eta egoera kritikoa batean sortu duen erakunde dugu ikastolen bilduma. Latz kostata baina hor dago. Ekonomia aldetik hamai-ka buruhauste gurasentzat eta horrez gainera, ordu luzeetako iskanbilak batzordekoentzat. Hau da gehienontzat. Zer, baina, beste batzuentzat? A! Bai, beste batzuentzat zera da ikastola, burgesiak bere interesak babesteko bihar edo etzi behar izango dituen pertsonak (robotak) hezitze (prestatze) toki aukerakoak bakar bakarrik. Hortaz, honelako ikastolak edukitezotan, hobe omen da bat ere ez edukitzea. Hortaz, ikastolak suntsitzea hobe. Nola, ordea, suntsitu, herrian (bai, herri burgesean) hain sustrai-tuak dauden ikastolak, bidebatez herri horren beraren faborea galdu gabe? Lan zaila eta —badirudi— zenbaitentzat oso premiazkoa.

Zenbait buru injeniosoren-tzat ez da falta, gainera, metodo egokirik: ikastoletan biliguismoa sartu behar omen da, demokratak baldin bagara. Ikastoletan, euskerak eta gaztelaniak eskubide berdinak behar omen dituzte, gaurko Euskal Herriari erantzun jator bat emango bazaio. Ikastoletan erdara sartzeak (eta horrek bakarrik) burgesiaren hezi-toki bilaka ez daitezten lortuko ligu-ke.

Sarri entzuten ditugu honelako judaskeriak eta sentitu ere bai «mihiztokada» sakonak: alegia, ikastolak ez direla popularrak, kuota garestiegidunak dirrelakotz (hau egia da, baina EZINBESTEZ egia) eta euskaldun burges aberatsek pobreen kuotak pagatzen ez dituztelakotz, gurasoekin batera bilerak egin behar direla, demokraziatzeko giroan, berauetan «kristorenak» armatu eta gero ospa egin. Ikastolari buruz ezer lortzen ez bada ere, «egina» han

gelditzen dela eta horrek «herria politizatze» balioko omen duela.

Ikastolen «aldeko» sistema honen defentsa behin baino gehiagotan entzun ahal izan dugu. Baina ba dakigu nor diren. Arraiak ahotik arrapatzen dira, egia, baina tipu hauk zaila da egiten dituzten hitzeko planteamenduetatik okerean harrapatzea eta batez ere jende xeheak. Egiten dituzten planteamenduei bagazozkie, badirudi segurki borondate onetz eta pausok aurrera eman nahiaz dabilzala. Hoiiek beroiek, ordea, beste planteamendu politikoetan ezagunak ditugu eta postura honek salatzen die ikastolei buruzko planteamendu demokratikoen gibelesko oker asma. Puntu honetan eta ikastolen beharra sentitzen dugunok, hots, hasieran aipaturiko GEHIENOK, erne jokatu behar dugu eta ez gehiengo osatzen dugulako (guk behintzat ez dugu sinesten demokrazia numeriko, huts, faltsu eta prefabrikatua), gehiengoak nahi dugun zer horrek euskal herrietasunaren eta herrigintzaren etsaiak buruzut, belarri luze, kezkatu eta kalte egiteko OSO PREST jartzen dituelako. Geuk egina ontzat ala txartzat emateko kriterioa, etsaiengan dadukagu: min ematen badie, ontzat eman dezakegu egindakoa; ez badira guk egindakoz arduratzen, okerean gabiltza eta zentza gaitetzen.

Ikastoletako ideologiaren aurka, irakasteko metodoen aurka eta kuoten prezio garestiaren aurka egotea, gauza bat da eta gure ustez behintzat, ametittu beharrekoa; oker hau lanaren poderioz barrutik bertatik zuzendu nahi izan partez, ikastola bera izorratu eta desegin nahi izatea, beste bat da eta gure ustez onartu ezinezkoa. Tipo hauen jokabidea anulatu egin behar da: hauen jokabidearen azken ondorioa zein izango litzakeen garbi agertuaz, eta kasu honetan, dauden ikastolak galdu eta nahi litzukeen bezalakoak inolaz ere ez eskuratzeko litzakeela azken ondorio hori, garbi agertuaz. Hau, azken finen, etsaien jokua egitea litzateke eta, hain zuzen ere, jokabide trixte honetxek nabarmendu gaitu euskaldunok ia geure historia ezagun guztian.

Erlijio dela, sozialismoa dela edo-ta beste zer nahi dela, barne-borroka latzak daduzkagu eta aurrera ere latzagoak izanen ditugu. Besterik uste izatea, aingerukeria bat da edo-ta errealitatea deseoz bat egitea.

Pluralismoa, benetako pluralismoa, onartu beharra dago, nola sozialismoa nahi dutenek hala, aitortu gabe, iguin diotenek. Guk, geure aldetik, oharño bat ezarri nahi genuke, geure pentsamoldea agertu aldera: Euskal Herriaren ez dela sozialismoa arriskuan dagoena, euskaltasuna baizik. Sozialismoa, bere texto klasikoek diotenez, etorkizuna berea duen haur jaio berria dugu. Kapitalismoari nahi eta nahiez nagusitu behar zaion ondorengo sistema logikoa. Marxismoak garbi adierazten du hau.

Euskaltasunaren geroa, etorkizuna, nik behintzat, ilunagoa ikusten dut, egia esan. Honi buruz, faktore askoren influentziak daude ikustekoak. Euskaltasuna eta sozialismoa «zerbait» diferentek ditugu oso. Pertsona batek senti lezake lehenengoaren beharra eta bigarrenaren beharra bai eta lehenengo arbuatu; beste batek, bigarrenaren beharra bai eta lehenengo arbuatu; beste zenbait, aldiz, biak behar edo-ta biak arbuatu. Bata eta bestea definitzekoan, ordea, euskaldun nor

den mugatzeak liskar gorriak sor ditzake eta sortzen ditu. Ez, ordea, sozialismoa zer den mugatzeak, bera (sozialismoa) inposatzeko metodologiarik efikazena zein den mugatzeak baizik.

Euskaldun izatea ez da DOKTRINA ekonomiko, sozial edo-ta politiko bat; sozialismoa, berriz, hiru adar hauen elkar-tze konkretu bat litzateke. Hain zuzen ere, euskaltasunaren mugatze zail horren babesean hegapetzen dira hitz-jario erreze-ko bere etsai aho-zuriak. Nor den euskaldun eta nor ez mugatzea, arazo zaila da, dudarik gabe. Euskaradun eta euskararik ez «dun» binomio mugatzaile ximplea baino askoz zailagoa. Geure naziotasunean dago euskaltasunaren etorkizuna. Euskal naziotasunaren etorkizuna, berriz, Euskal Herriko gizonen eta kanpokoan politika jokabian datza. Euskararik gabe ez litzake euskal naziorik izanen ez eta Euskal Herriarik ere. Eta gaurko edozein politika jokabidek, euskaldunon historia osoa hartu behar du oinarritzat, herriak bere borondatea inprimatu duen historia. Nor da, beraz, gaurregun euskaldun? Nahi duenarentzat, erantzun erraza luke; zaila nahi lukeenak, aldiz, erraza luke zailtzea.

Zenbaitentzat, euskaldun izatea, azentu tipiko batez erdara mintzatzea litzateke, edo-ta harrokeriazko «boina-grandismoaren» defendatzaile sutsua izatea edo-ta amaren sabeletik leku konkretu batean jaiotze hutsa edo-ta beste batek esan zigunez, zera, historiak ez duela pausorik atzera ematen eta kapitalismoak euskalduntasuna izorratu eta bueltarik gabeko bidean ezarri badu, kapitalismoaren gaizki egina kondanatu beharra dagoela hain zuzen, baina baita gaurko errealitatea onartu ere, hots, «sozialismoa internacional zientifikorean izenean» ez gaitzela, euskaldunok, kapitalismo aluak ezarri gaituen bueltarik gabeko bide-tik (herri bezala galbidetik, alegia) irten nahirik alferrik ibil. Onar dezagula errealitatearen behingoz eta txistuaren deabruzko soinu ozeneren bitartez geure «agonia» luzatu nahi izateari ongi baderizkio ere...

Luzetxo atera da, badakit, baina nire barneko borroka zitalaren suak bultzatu nau hontara eta ez inorenganako iguinak, gorrotoak edo-ta zernahik, irakurtzeak irakurleagan horrela pentsatzeko arrazoirik sor baleza ere.

AKAITZ

## Benetako euskaldun ote gera?

Galdera honi erantzutea gogorra da, baina lehenengo beste galdera bat egingo nuke. Zertan ikus liteke benetako euskaldun geran ala ez? Nire iritziz, Euskal Herriaren egiten dugun lanean eta herriaren alde lanean sartzen ditugun orduetan, esango nuke.

Prest ahal gaude Euskal Herriagatik lan egiteko? Zenbat ordu sartzen dugu eguneroko, astero, hilero, urtero, bakoitzak ahal duenean, gure herriaren alde?

Nik uste dut, Euskal Herriaren alde eguneroko, astero, hilero, urtero, bakoitzak al duenean, ordu batzuk sartzen ez dituana, benetako euskaldun ez dela. Beronek euskalduna dela esango du baina neuk ez da esango nuke.

Bai zinerako, bai telebisioa ikusteko, bai txikiotak hartzeko, bai salas de fiestasak, bai erdal egunerokoak irakurtzeko denok daukagu denbora, baina Euskal Herriaren-tzat, gure herriari emoteko, denborarik ez daukagu.

Orain beste galdera bat dator. Ze lan egin daiteke?

Lan asko egin daitekeela uste dut. Lehenengo eta behin euskararen alde. Euskaraz dakigunok gure hizkuntza landu behar dugu eta beste batzuri irakatsi. Euskaraz idatzita dauden aldizkariak irakurri eta eurretan idatzi. Umeekin lan egin euskararen arloan. Euskaraz hitzegin toki guztietan, nahiz eta jakin, toki askotan euskaraz ez dakiala inork. Euskaraz ez dakianak badu nahiko lanik euskerak ikasten.

Beste alderdi batetik, zergatik ez gara sartzen dantza taldetan, kanta taldetan, txistu taldetan, antzerki taldetan, kultur taldetan, t. a. zuzenean parte hartzeko, edo talde hauei behar dituzten gauzetan laguntzeko?

Denoi jasoten zaigu, geure nahikeriak betetzen ditugula lehenengo, eta alferkeriaz eta nagikeriaz beteta gaudela.

Gauza hauek egiteko, orduak sartu behar dira baina hortarako ez gaude prest.

Euskal Herriak behar ditu gauza hauek eta, bai orain gogoratzen ez zaizkidan beste batzuk ere, baina

gu, euskaldun deitzen garenek, ez gaude prest lan egiteko, gauza hauek aurrera eramateko orduak sartzeko.

Honela jarraitzen badugu, benetako euskaldun izango ote gara? Nik ezetz uste dut. Euskaldun, izenez bakarrik izango gara baina ez ekintzaz.

Herriak behar dituan ekintzetan sartuta egon behar dugu eta ekintzetan sartuta egoteak orduak daroaz.

Oporraldiak bukatu dira eta negua dator. Taldeen bitartez ekintzetan sartzeko denborarik onena orain da, benetako euskaldun garaile diogunontzat.

Zergatik ez gara taldetan sartzen lan egiteko? Egoerarik onena orain da, talde guztiak planifikazio berriak egiten hasten dira ta, gero negu guztian lanean jarraitzeko.

Orduan ba, benetako euskaldun izan nahi badugu hauxe egin behar dugu: ikusi zelan sartu talde baten barruan lanean zintzo jarraitzeko.

PELI

zeruko  
**ARGIA**

Zuzenadaria:  
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA


Nafarroa-Kantauri eta Arago-ko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldiz	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola:

«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1 IRUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963



## berriak

● Jon Urrujolegi adiskide jatorrari esker jakin ahal izan dugunez, urriaren 20an, eta gaueko 9,30etan, jaialdi bat eratzeko da Donostiako Aieten, bertako «Gurutzeaga» Ikastolaren alde.

Duela hamabost egun sail beronetan besterik esan arren, programa apur bat aldatu beharra izan dute antolatzaileek, hemen aipatu beharrik ez dugun arrazoiengatik.

Hala ere, diogun, beste aldaketarik ez bada —eta antza denez, ez da izanen—, Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo kantariak hartuko dutela parte, bai eta Donostiako «Goizaldi» dantza taldeak ere. Ea ba!

● Hilaren 14ean, euskal liburu azoka batez bukatuko da Zumarragan «Euskal Kultur Astea». Denetarik izan da bertan: hitzaldiak, filmak, bertsolari ihardunak, dantza eta kanta jaialdiak, antzerki saioak, pintura erakusketak etab. etab.

Zoritxarrez ez dugu hartaz denboraz jakin ahal izan. Antolatzaileek, komeni zitzaizen zerbait jakiteko, nolabait jakin zuten gure telefono zenbakia. Programa emateko, berriz, ahaztu egin bide zaie.

Halako zerbait gertatu da Oñatin, Beran, Zumaiian... Ea datorren urtean ganora apur bat gehiago ikusten ahal dugun.

**bilbao... bilbo** Hizkuntzarekiko eztabaidak oso gustatzen zaizkigu euskaldunoi. Zer esanik ez herri izenak, abizenak eta beste horrelako edozer bada. Betidanik esan izan da, ardo tantan bat edanez gero jendea pronto dagoela edozertaz hitzegiteko, baina batez ere eta gehienbat, politikaz eta erlijioaz. Bi gai hauk baztertu gabe, euskaldunok hirugarren gai bat dugu, hau da, hizkuntzalaritza. Ez dakigu, ez, zer arrazoiengatik, baina taberna zuloan zein hondartza baterrean ez da inoiz jendea biokimikaz, elektronikaz edo paleontologiaz mintzo. Goraxeago aipatu ditugun hiru gaiok, ordea, neurririk gabe, zein baino zein gehiago, guztiok bait gara jakitun, guztiok dadukagu zer erakutsi eta.

Hala ere, gai hoitaz dakienik ere bada, eta dirudienez hoitako bat dugu aste honetan idatzi digun irakurlea. Entzun diezaiogun ba, guk sail honetan birritan esandakoarekin bat ez badator ere, merezi duelakoan bait gaude:

Amatiño:

Ez najak hirekin Bilbao hitzarekin. Begira zak zer esaten Juan Jose Luis Lizundiak (ANAITA-SUNA, 177 zenb. 1969-XI-30) «Ezagutu zure Herria» sailean: Azkuek, Euskaltzainburu hainbeste urtean izan zanak, hauxe esan eban behin: «No incluyo entre ellos Bilbo, porque este bocablo no sólo es usado en sus siete calles y las barriadas de Larraskitu y Buja, sino en todos los pueblos en que se habla el dialecto bizkaino, tanto en Bizkaya, como en Alaba y Gipuzkoa, siendo por lo mismo merecedor de toda consideración y respeto».

Julio de Urquijo-k, Shakespeare-ren beste lerro honeek dakaz: «Sir John and master mine, I combat challenge of this latten Bilbo».

Aipamen honeek egin ditut, nire eritxiz, Bizkaiko uriburua izena, gaur eta lehentzago bere, Bilbo delakoa, eta ez Bilbao. Beharbada, inoizko baten, Bilbao izango zan; baina gaur «carta de naturaleza» hartu dau hitz honek, eta ez dau inok euskeraz Bilbo esaten, urruneko euskaldunen bat ez bada, uri honeguz hartuemon bakoa.

Gainera, gaurko Bilbao erdalduna atsegin ez jakunontzat, Bilbo izena da ezaugarririk onen, gure uriburua euskalduna izan dala ta izan behar dauala adierazotzeko.

Neretzat, Bilbao esatea, Salamanca-ren ordez Salamanca esatea bezalakoa duk, eta Arabako gaurko «Valle de Irurazzen» ordez «Hiruhazheza» esatea, arkaismokerietan erortzea. Gainera, euskaltzaleontzat Bilboren irudia hainbeste euskaldunena duk, eta Bilbao, «bilbainismo» folklorista eta «bilbainada» erdaldunen irudia ordea, sozio-politika arrazoiak bere zerbait balio juek nik uste.

Nahikoa duk gaurkoz. Heuk ikus. Besarkada bat eta agindu.

● Eta guk zer esan Bizkaiko hiriburutik jaso dugun gutun honetaz? Dakienak daki, eta bilbotar honek itxura denez badaki.

Horrez gainera esan dezakegu geure aldetik, Euskaltzaindiak betidanik «Bilbo» erabili izan duela bere agiri guztietan, eta halaxe azaltzen dela ere, irakasle mailako etsaminetako agiri eta kar-netetan.

Hiri izenen hauzi honetaz batzorde bat ari zaigu azterketetan Euskaltzaindiaren ardurapean. Oraindik, dakigunez, ezer ez dago erabakirik. Noiz erabakiko den ez jakin. Tarte honetan edonork izan dezake nor bere iritzia.

Nolabait erabaki behar eta, orain arte beste iritzi batekoak izan arren, Bilbotik jaso dugun gutun horri guk geuk zer erantzun ez dugularik, ontzat eman beharrean gaude BILBO euskal era orokor eta hedatua.

Irakurleak ikus beza.

**izenak direla eta** Azken bolada honetan aski mintzatu gara Euskal Izendegiaz, euskal izenez eta hauzi honi buruzko hainbat arazoz. Aurrera jarraitu aurretik zera esan beharrean gara, jendeak gustora irakurri ohi dituela gai honi dagozkion aipamenak. Izena ez da, ez, hiruzpalau egunetarako haur jaiok berriari zaion zerbait, eta gurasook erabat ardurtzen ari zaizkigu arazo honetaz. Sarri ditugu ere era honetako berriak, eta irakurlea pronto dago, behar bada, telefonoz hots egiteko ere.

● Honelatsu izan dugu, hain zuzen, bergarar batekin hitzegiteko beta. Nor denik ez dakigu, izenez Txomin dela bai, gainontzekorik ezer guti ordea, ez eta behar ere apika.

Txominek «Saioa» izenez nahi zuen bataiatu neskataltxo jaiok berria, eta agiriren bat behar ote zuen edo, hots egin zigun telefonoz.

«Saioa» Euskal Izendegian dator, baina batere agiri edota erreferentziarik gabe. Halakoetan Euskaltzaindiak egin ote dezake harako izenaren zertifikatu bat? Zertan oinarritu gabeko agiririk gabe? Horra koska!

● Jose Mari Satrustegirekin mintzo gara arazo honetaz, eta esan digunez, «Saioa» Baztan aldeko mendi gailur baten izena omen dugu. Sasoi batetan elizatzoren bat izan omen zen haren maldapean, baina gaur, ordea, ez zaigu hartaz batere agiririk geratzen.

Hala ere, «Saioa» izeneko zenbait neskatala ba omen dago gaur egun Euskal Herrian zehar, eta Euskal Izendegian aipatzen denez, Euskaltzaindiak onartua eta baietsia dugu, Euskaltzaindiaren beraren zentzutan bestelako agiri edo xehetasunaren premiarik gabe.

● Besterik gabe jo du gure Txominek Bergarako errejistrora, eta batere oztoporik gabe onartu diote «Saioa» izena. Ez bide diote eskatu ez Euskaltzaindiaren agirik, ez eta Euskal Izendegia liburuxka ere.

Txominek esan digunez, berriz, Bergarako errejistroan ITZULPENIK GABEKO EDOZEIN GIZA IZEN onartzeko erabakia edota ohitura omen dute. Ez da guti, ez horixe! Beste edozein lekutan beste horrenbeste eginen balute...

● Diogun gure aldetik, Bergarako Errejistroko arduradunek betidanik agertu izan dutela halako jokabide ireki bat euskal izenen arazo honetaz.

Orain dela hiru urte hain zuzen —Euskal Izendegia argitaratzeko zelarik oraindik—, Euskaltzaindiak 1966 urtean argitara eman zuen zenbait izenen zerrenda eskatu ziguten, «halakorik zegoenik ere ez bait genekien, eta interesgarri eta baliagarri iruditzen bait zaigu» esanez.

Gure txaloak Bergarako arduradunei beraz, eta izan dezatela jarraitzailek ugari opa diegu, ez bait gara guztiok seme-alabak Bergaran munduratzten hasiko!

● Ez dira gaurkoz Bergarako ipuinok amaitzen. Duela hiru aste esaten genuen esan, Bergaran «Zigor» izenez bataiatua zela haur bat, eta ez genekiela juzgaduon ontzat emana ote zen. Inork badaki esan dizaigula... eskatzen genuen.

Aldizkarietan eginiko horrelako eskariak haize epelak eraman ohi ditu gehienetan, ez da baina horrelakorik gertatu oraingoan. Hara non azaldu zaigun lantegian gizonezko lerdan bat Bergaratik propio etorria, eta gauza normal bezala, egunonik ere esateko astirik eman gabe, dioskun: «Hemen zuk eskatzen duzun». Eta «Zigor» izenaren «Libro de Familiaren» laupabost kopia eskaintzen dizkigu, bat guretzat eta besteak Euskaltzaindiarentzat, «zuk nik baino errazago jakingo duzu nora bidali eta...».

Tomas Agirre dugu gure irakurle sutsu hau, Beasaingo seme eta Bergaran bizi dena. Eta «Zigor» izenaren agiria ezezik, beste bi seme-alaben agiriak ere eskaintzen dizkigu: «Ugutx» eta «Loiznax». Haur duk mutila hau. Eskerrik asko!

● «Loiznax» izenak ez du batere zailtasunik, edota ez luke izan behar behintzat. «Ugutx» izenaz, ordea, ezin dezakegu beste horrenbeste esan, «Ugutx» Arana-Goirenen sandutegian bait dator, eta guztiok dakigunez gure abantotarrak ez du adiskide gehiegirik Euskal Herriko errejistroetan.

● Eta izenekin bukatzeko diogun, «Ainhoa» onartu berria izan dela Irunen, eta «Unai», «Leire» eta «Erik», berriz, Iruñean. «Erik» zer izen ote? Auskalo! Iparraldeko kutsua darama, eta iparraldean aipatzean ez gara Ipar Euskal Herriaz mintzo. Iparrago, nonbait.

● Azkenik, gure eskerrik sutsuena Gasteizko berri emaille den «Gasteiztar» adiskideari, «Zaloa» izenaren berri eman bait digu arestian.

**bertso paperak** Irakurlea oroit daitekeen izako «Xenpelar» sariketan azaldu ziren lanik ontxoenekin liburuxka bikain bat argitara eman zigun Tolosako AUSPOA Liburutegiak. Sorta honetako 111.garren alea osatzen zuen, eta ehun eta hirurogei orrialderen barrera, edozein bertso-jartzailearen bertso berri hautatuak arretaz agertarazi ziren. Azala berriz, guztiz polita, «Xenpelarrek» berak 1868 urtean Bergarako Matxin inprimategian argitara eman zuen «Azken Juizioko» bertso berrien kopia azalduz.

Aurten ere, halako zerbait eginen zelakoan eta, Aita Zabalagana jo dugu informazio bila. Elkarrizketa uste ez bezain motza izan dugu, eta ez Aita Zabalak ondo hartu ez gaituelako —albitariak nekez aurkitu ohi du beste horrelako gizon prestu eta laguntzaile amorraturik—, tamalez zer esan guti zuelako baizik, hau da, AUSPOAK ez duela aurten «Xenpelar» Sariketa horretan parte hartu duten lanen bilduma argitaratuko.

Aita Zabalak esan digunez, izako aleak hain txukuna, bete eta interesgarria zirudien arren, ez omen zuen batere harrera onik izan erosleen artean. AUSPOA Liburutegiko beste edozein ale baino askoz ere gutiago saldu omen da. Ekonomia aldetik nolabait bete beharrezko zuloa, eta arduradunen asmo, itxaropen eta planei buruz, bestalde, egundainoko «tzaskoan».

Nork esan gero? Sinetsi ezin hainakoa! Arazo honek I. Oleak aurtengo sariketa horretarako propio eginiko lehen ahapaldia dakarkigu gogora.

Orainaldian bertsoetara nola sarri biltzen geran, entzuleetan gazte gutxitxo ikusten degu aukeran. Pozgarri ez dan aldakuntza bat datorrigu izakeran: Ez ote gaude bertsoarritza galduko degun bezperan?

Batek daki! Hala ere, ezin ahaztu, Bertso-paper Sariketako aleak harrera onik ez bazuen izan ere, gainontzekoek —nork bere neurrian— badutela, Beraz, agian, ez bertsoarritza galduko dugun bezperan, baina, bai, «Bertso Berriak» erabat galtzeko giroan. Giroa falta zaigu, bai, nolabaiteko askatasuna gai bati zein besteri atxikitzeko. Karlistadaren sasoiro giroa falta nonbait.


**azken berriak** Zintzo asko eskura ahal izan dugu Jose Joakin Irigaray adiskide onak Pasai-Donibanetik bidaltzen digun berri zenbait.

«Euskal Kultur Aste» bat eratzeko da, bai, Pasai, eta oraindik xehetasunik jakin ez arren hona Irigarayek bidali ahal izan diguna. Alde batetik lau hitzaldi izanen dira, alegia, Prehistoriaz (Benantxo Otaegi), Ekonomiaz (Iñaki Larrañaga), Ikastolaz (Txomin Izagirre), eta Folkloreaz (Gaizka Barandiaran). Bestetik, filma bat ere bai, «Ama Lur» deitu filma hain zuzen, herriko zinematan bertan.

Horrez gainera, urriaren 20an (larunbata), kanta jaialdi bat eratu da gaueko 9,30etan, eta ikastolaren alde eratu ere, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo bikoteak hartuko du parte lehenbizi, eta «Oskarbi» eta «Oihartzunak» kanta taldeek gero.

Biharamunean, urriaren 21ean, umeei bereziki eskaintako eguna eta programa eratu da.

AMATIÑO



# Sortalde Gertuko haizeak

ERABAKI GARAI

«Sortalde gertuko arazoa palestindarren inguruan jaio zen ezkerreko, ez dago adarretan txioka ibiltzerik arazoaren ardatza alde batera hutzirik». Algeriako Bouteflika ministroaren aitortpen hau zentzuz betetarik dago.

Izan ere, Israel eta Palestindarren arteko haizua 1967-garren urteko gerraren ondoren O.N.U.-ko Seguridade Batzordeak hartutako 242-garren erabakiaren inguruan kausitu da. Gaur ordea, aldaketa bat nabari da. Nixon eta Brejnev San Clementetik mundu osoari mintzatu zirenean ez zuten aipatu O.N.U.-ko erabaki ezaguna. Oinarri faltarik ez du, beraz, Algeriako ordezkariaren aitortpenak.

IRTERARIK GABEKO BIDEA

O.N.U.-ko erabakiaren inguruan egin diren ahaleginak ez dute pakerik ekarri Sortalde gertuko Herrietara. Batetik, gerra galdu zuten arabetarren Estaduek —U.R.S.S.-en laguntzarekin— Israelgo armadaren itzulketara, 1967-go gerraren aurretik zituen lurraldeetara, eskatu dute. Israeldarrek —U.S.A.-ren babespean— O.N.U.-ko erabakiaren arabera hauek ere, denak onartuko luteken muga segurua eskatzen zuten lehenik.

Denak onartutako muga segurua jarri behar ziren tokiaz eztabaida ugari egin da geroztik. Arabetarrentzat eta U.R.S.S.-entzat sei eguneko gerraren aurretik zeudenak jarraitu behar zuten. Israeldarrentzat, nahiz eta bateren batzuek Israel Handiaren ametsa gorde, eta U.S.A.-rentzat gerra aurreko eta ondorengo mugen artean nonbait behar zuten muga berriak.

Gauzak horrela izanik, zergatik jokatu da katuak eta xaguak bezala? Denek dakite, gaur egun ez dagoela gerra bat egiten den tokitik besteetara zabaltzerik haundien arteko pake lotsagarria dirau bitartean. Mugen arteko haizaren inguruan eztabaida ibili bada, auziaren benetako esanahi politikoa azaltu nahi izan delako gertatu da. Ez besterik. Eta baita ere, Israelgo muga denak onar zezaten eta «seguruak» gainera.

Inperialismoaren aldetik, 1967-garren urteko gerraren arazoak zeharo desegindu dira. Nasser-en ahaleginak arabeak biltzearen eta imperialismoari buru egiteko alferrik galdu dira. Nasser-en Ejipto zen arabetarren artean sartaldeko interesak arriskuan jarri zezakeana. Gaurko Ejipto, bere ziliborari so eta zeruko jauntxorik gabe ez da beldurgarria agertzen. Imperialismoak eratu ditzake urrutirako asmoak.

1967-garango gerraren elburua anti-inperialismoaren alde zegoen Ejipto hura desegitea zen. Hor geliditu dira, bai, Yemen eta Irak, baina hauek ez dute arabeen artean harek zuen itzalik. Ejipto ondaturik, gaur Inperialismoak behartu dezake Israel gerra denporan eskuratutako lurraldeak huztera. Golda Meir-en bere tokian jarraitzeko asmoa, ondoren Sapir jaun moderatuari tokia uzteko, Dayan extremistari tokia hartzen ez uzteko bide bat baik ez da.

Israel inperialismoaren besoa baldin bada ere, baditu, hala ere, bere eskabideak. Bereganatutako lurraldeak utzi aurretik, bere mugen seguridadea eskatu du. Palestindarrak dira seguridade arriskuan jarritzen dutenak eta hauekin bukatu beharra zegoen. Jordaniari, batera edo bestera, Israelekin pakea egitea konbeni zitzaien eta, neurri batean beintzat, 1970-garren urteko irailean palestindarren txikitzea lortu zuen. Ondoren, 1973-garrenean, Libanok egingo zuen beste ekinaldi bat.

Jordaniak palestindarrekin bukatu nahi izan zuen. Libanok palestindarren eginkizunari mugak jarri. Libanoko gertaeraren ondoren etorri ziren, hain zuzen, Israel eta Palestindarren artean arazoa zuzentzeko eskabideak.

ARAZOAREN ZUZENKETARAKO PROPOSAMENDUAK

Goiz da oraindik ze proposamendu onartuko den esateko. Hala ere, ahalegin hauek nondik dijoazten ikusteak konbeni da.

1) Burgibaren proposamenduak 1947-garren urtean jartzen du arazoaren iturria eta garai hura kontuan harturik palestindarren eskubideak errespetatu erazi.

2) Ejiptotarren proposamenduak palestinar Herriaren nazio eta agente eskubidea O.N.U.-n onareaztea eskatzen du. Palestindarrak dira, hala ere, eskubide hoiei eraketa bat emango diena eta horretarako daude Palestinako Aberriaren Batzar nagusikoak. Bide honetan abiatzeko agintedun batzuek hautatu beharko dituzte palestinoak berak.

3) Algeriako proposamenduak Israel eta Palestinako arteko harremanak eskatzen ditu. Algeriarrentzat estatu bakar batean bizi behar lukete hebreoak eta palestindarrak pluralismo batetan.

Palestindarrak ere badituzte beren asmoak eta eman dute beren erantzuna proposa zaien asmo hoiei.

Oso zaila izango da noski, erresistentziko buru batek palestina historiko bat baino txikiago den lurralde bateko agente onartzen duela bestearen aurrean aitortzea. Hala ere, Estaduaren ideia zabaldu da. Baina erantzunak ez datozte bat:

a) Habache zuzendaripean mugitzen den Askatasunaren aldeko Elkarte Herrikoiak eta Siria zalea den Saika ez dute onartzen exilioan dagoen gobernu baten ideia.

b) Yaser Arafat-ek zuzentzen duen El Fath-eko gehienak eta Palestinako Askatasunaren aldeko Elkarte Demokratikoak ez dute gaizki ikusten exilio garaiko gobernu bat baina eragozpe handiak ikusten dituzte hura eratzeko.

d) Beste batzuek berriz behar beharrezkoa bezala ikusten dute Estatu baten eraketa. Bestela, diote, berealan bukatuko dute erresistentzi osoarekin.

Indar iraultzaileen eskuetan daude erantzun ezberdin hauen irtenbideak. Ejiptoko egoerak pisu handia du arazo honetan. Hau idazten ari naizela, Ejipto berriz ere gerrara abiatu dela berri hartu dut. Ez dedila Inperialismoaren sendotze berri bat gerta.

D. IZA

# MALTZURKERIA BEDEINKATUA

BLANCO y NEGRO astekariak bost orrialde zabaleko lan bat eskaini dio, irailaren bukaeran, Euskal Herriari. Idatzia, ezaguna den Amando de Miguel soziologoak egiña da.

Bai astekaria eta bai idazlea indar batzuen eta ideologia jakineko baten agerkari direla ez dago ukatzerik. Indar eta ideologia horiek bere garrantzia badute gaurregun Espainian. Beraz, arreta eta ardura apur bat bederen, gutienez, eman behar diogula, uste dut, «bestek gutaz zer dion» jakiteari.

Fama badugu, itxiak gerala. Egia hori, gure geure baiteratze hori, guk ongi konprenitzen dugu. Gure ahuleria eta beldurraren fruitu da hertsitasun hau. Baita gure errenditu nahi ezarena ere, alabaina, hots, gure irmotasunarena, gure gu geu izan nahiarena.

Orain, ordea, beldur hori galtzen hasiak gara. Gure irmotasunak izpirik galdu ez duelarik, aitzitik geure buruak eta geure kontzientzia argi-agoak eta helduagoak nabaitzen ditugularik, beldurraren seme den ameskeriak hastandurik, argiak eta kemenak eskaintzen duen errealtasun baxerakatzera, gero eta prestuago arkitzen da, gaurregun, euskaldun pentsatzailea, euskaldun langilea, euskaldun herrizalea.

Bestek gutaz diona «jakiteak», batipat, zera ematen digu, jokoak zeinekin jokatzen dihardugun ezagutzea. Munduan inork baldin badaki, kontrarioraren berri jakiteak duen garrantzia, hori euskaldun baserritarrak jakin du eta daki. Korrikalaririk, haizkolaririk, harri jasotzailerik, ahari apustuzalerik, ez da izan gure baillaretan, alde edo moldez, «bestearen markak, joerak eta asmoak» ezagutzen saiatu ez denik. Zenbat aldiz entzun dugu, gure baserritar jokuzaleak eta jokalariek izan duen eta duen maltzurkeria. Zenbat aldiz ez dugu entzun gure apustu eta jokuetan ibili eta dabilen transparenten zikina eta itsuskeria.

Nik ez diet inoiz jaramonik egin gure «ohitura lotsagarri» horien zigortzaileei eta inkisidoreei. Arrazoi bi ukan ditut horretarako. Bat, diru-jokotzailea oraino inoiz zan ez nazelako. Bi, jokalariek, apustu zaleak, «hain ezagunak omen diren» tranpa eta azpikeria horiek guziak kontuan hartu behar dituelako, dirua nun jokatzen duen jakin dezan, eta pausoa jakinaren gainean eman dezan. Bestela tontoa da, eta loriarik ez omen da izango tontoentzat, dio eskakun batek.

Ez moral aldetik, baizik herri psikologia eta herri izaera aldetik behatu izan diot beti gure baserritar maiteen delako maltzurkeria horri. Eta nere baitan eta nere kolporako, hamaika bider, hau galdatu ukan diot neure buruari: «gure jakitate bikain hori, gure maltzurkeria aberats hori, zer dela-ta ez dakigu, ez ahari jokoetan bakarrik erabiltzen, aitzitik gure herri-arazo nagusienetan hartaz baliatzen?».

Ez naiz orain hasiko, herrigintzan jarraitu eta igan behar dugun «bide zuzen eta garbiaren dotrina», aztertzen. Susmoa badut idealismo antzu honen erroak nongo lurretan errotuak diren. Oraingo hau besterik ez diot. Ez da erraza ukatzea, euskaldunok herrigintzan —herrigintzari eman nahi diogula diogun mailan, ez folkloregintzan— motel, beldurti, eta itxiak izan gara. Beti ez nuke esango, baina bai, behintzat, gaurregun, mende honetan. Areago, gure moztasuna dotrina distiratsuz estali eta jantzi izan dugu; gure «zintotasunaren eta ereduotasunaren» jantziak jantzi ere. Eta horrela doakigu gure herria...

Jo ote du gure moztasunak eta hertsidurak lagatzeko ordua? Hala balitz hobe, Nik neure aldetik, neure ahalegina egiten hasi nahi dut «bestek gutaz zer dion» jakiten. Eta, zure baimenarekin, irakurtzaile, hemen, astiro, agertzen.


G. ANSOLA

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

## JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'ezu  
**ATOMIZADO LAGARTO** — jaboia erabilii beti  
 Eskuz ba'zabiltz, **LAGARTO** — jaboia bear dezu erosi  
**JABON LAGARTO**, garbiketarako jaboia bakarra  
 Etxeko-andrearentzat neskerarik egokiena.

## JABON LAGARTO!



### ZERUKO ARGIA

### SALTZEN DA:

ELGOIBAR

M. Gorostiza

EIBAR

Angera  
 Markina  
 Iriondo  
 Eguren  
 Gisasola  
 Barela  
 Alday  
 Aranburu  
 Estanko, 11  
 Isasi  
 Simon  
 Amana  
 Uraui  
 Urizar  
 Siglo XX

### BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGASO, ARDO GAIN-GAINEKOAK  
 ETA EBARI GUZTETATIK

Bias de Lezo Kalea, 6  
 Urutizaldia: 41 20 65

DONOSTIA

### MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA  
 Dei honi jarraituz bazatoz  
 zure erlojua KANARIAS bertan  
 baiño merkeago erosiko duzu

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI

## JOSE ZINKUNEGI' BEN OPTICA BEBIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

# SUMMERHILLgo ESKOLAREN

## SORTZAILEA HIL DA

A.S. Neill-en heziketa lanak mundu guztian ezagunak dira eta oihartzun handikoak. Berak aldarrikatzen zuen heziketa libre eta aginpidekeriaren kontrakoak txalo asko eta kritika aski sortarazi ditu. Orain bizitzen ari garen eskola-berritze honetan beharrezkoa zaigu horrelako jakintsuek zer dioten ezagutzea. Neill-en heriotzak ematen digu gaur biderik, bere obraz eta ideiaz mintzatzeko.

A.S. Neill, Ingalaterrako pedagogoa ospetsua, 90 urtekin, Irailaren 23an Londresen hil da. Neill Eskoziako irakasle baten semea zan. Bere bizitza osoan, heziketa askatu bat sortzen saiatu zan. Bere helburua pedagogikoa zan: umeak askatasunean hezitzea, hots, sexual errespresioa eta agintekeria umeen begietatik kentzea.

1916garren urtean Edimbourgoko Unibersidadera, Matematikak eta Letrak ikastera joan zan. Alemania, Viena eta Ingalaterrako eskola batzuetan lehenengo ikasketak egin zituan. 1921ean Summerhill-go eskola sortu zuan (Londrestik 160 Km).

Eskola honen alderdiak liburu hotetan dituzue: «Niños libres de Summerhill», «Los niños en libertad», «En pro y en contra de Summerhill».

Neill-en helburu nagusiak Freud eta Wilhen Reich-en oinarriturik daude. Neill-entzat umea berez ona da, burges moralak ondutzen ez badu. Umearen gaiztakeriak moral honek sortarazten ditu. Umeak berezko askatasuna du eta eskolak, askatasun hau, osotasun guzian bizitzen irakatsi behar du.

Heziketa askatzaileak, heziketa berriak, benetako helburua lortzen du, umeari bere bizia egiten uztean. Hitz gutxitan esanda, irakasle baten lana, hauxe izan behar du: haurraren munitatik burges baloreak kentzea.

Ze katez, batez ere, haurra lortzen da? Bi hoekin: errespresio sexuala eta agintekeria. Kate hau ipintzen dute: Aitak-maixuak-polizialak-kuartelak... Gizonok bizitzaren etsaiak dira. Bizitzaren alde ego-

teak, umeagan fedea eukitzea, lan atseginak maitatzea, eta zorionari neurrik ez ipintzea behartzen gaitu. Bizitzaren aurka egoteak berriz, haurrak behartzera eta indarra maitatzera eramaten gaitu.

Neill-entzat zoriona eta maitasuna berdiñak dira. Gure gizartea maitasunak aldatuko du eta eskolatan zorionaren bideak irakastea nahiko dugu.

Neill-en eskolan agintaririk ez dago; jerarkiarik ere ez; umea eskolazteak garrantzirik ez du; umeak berak ikusi behar du ze klasetara joan, noiz jolastu, eta abar.

Summerhill-go askatasuna ordea ez da anarkia bat, baizik zoriona. Maitasuna, askatasuna eta zoriona batuak doaz. Summerhill-go askatasunak taldean du bere izatea.

Summerhill-en, lagunurkoa benetan errespetatzen da. Ume batek berak nahi duana egin dezake baiñan besteak ondatu gabe. Neill sexual askatasunaren aldeko izanaren, eskolan barruan ez zien neska mutillei maitasunik egiten uzten. Askatasunik ez dago umeak maixuaren edo gurasoen nahia betetzean, baiña ezta umeak bere ateraldiak toki guzietan asetzear ere.

Askatasuna karril bateko bidea ez da, bi karriletakoa baizik. Lagunurkoaren eskubideak ez onartzean, anarkia sortzen da.

Askatasunak bere neurria nun du? Taldean.

Neill-entzat, ume batek askatasun osoa du klasetara joateko edo ez joateko, nahi duanean jolasteko... baiña ez du eskubiderik, klase garaian tuturua jotzeko edo bertan jolasean asteko.



M. Alexander Neill

Umea, askatasun erresponsable batean hezi behar dugu. Umeak nahi duana egin dezake baiña ondorioak berak jasotzen ikasi behar du.

Disziplinak umeari erresponsabilitadea kentzen dio, eta itxurazko errespetoan hezitzen du. Askatasun eza, erresponsabilitade eza da. Hau garbienik kuartelatan ikusten da, eta zer esanik ez, kuartelen antza duten eskolatan.

Askatasuna zergatik? ez noski efikazia baten izenean. Askatasuna ez da moral edo agindu baten izenean eskatu behar. Askatasuna, nor beraren beharragatik eskatu behar da. Summerhill-go eskolaren helburuak ez daude. gizartearen etorkizunari begira zuzendutak. Eskolako garaia, zahartzarua prestatzeko garaia ez da. Eskola beste gizarteko edozein inzituzio bezala da; eskolak bere autonomia du. Beraz, eskolan bertan, umeak zoriotsu izaten saiatu behar dira. Instituzio guzietan bezala eskolan zoriona arkitu behar dugu. Eskola, geroari begira gauzak ikasteko toki bat ez da. Summerhill-go eskolak zorionaren iraultza proposatzen du.

Neill-en bideak zer irtera du? Gure gizartea horrela alda ahal dezake? Summerhill-dik Che Guevara gutxi irtengo da. Hala eta guziz ere, Neill-ek proposatutako heziketak gaur egun garrantzi handia du. Gaurko jakintsuek mundu osoa bonbaz estali digute. Gaurko teknikoaren jakinduria benetan zapaltzailea da. Gaurko agintariek, nola erlijio batekoak hala besteak, lurrean gosea kentzeko asmorik ez dute. Horrenbeste cohete eta armarekin munduaren etorkizuna oso negargarria agertzen da. Giro honetan Summerhill-go eskolan gauza asko ikas dezakegu.

Summerhill-go umeek, zapaltzaiearen aurka, metralleta gutxitan artuko dute, baiña ez dira ere kontsumo gizartearen atzaparretan eroriko. Gaurko gure eskolak klase ezberdintasuna sortzen du eta, kapitalismoaren morroi zintzoak prestatzen ditu. Summerhill joku honetan ez da erori. Norbaitek esango dit Neill-en eskola burges txikien semeek osatzen dutela. Egia da. Akats hau Neill-ek berak ezin izan du zuzendu eta bere ondorengoek ez dakigu konponduko dutenez. Dena dela, gaurko gizarte zapaltzaile honetan besteri kalterik egin gabe zoriona arkitzea ez da gutxi. Neill-en bidea pulpitoetako hitz ahulekin berdintzeko ez da. Bere eskola hor gelditzen zaigu eta bera gabe ikusiko dugu noraino irixten dan.

Aska ditzagun gaurko umeak, alde batera utziaz hainbat irakasle. Zoriona ez da saltzen, ezta erakusten ere.

Gaurko moralisten etsai haundi bat hil da.

J.J. DORRONSORO

# IRAKASLE EZEZAGUN BATI ESKUTITZA

Kaixo irakasle!

Esames txar, marmar eta hitz gaizto anitz esan ohi ditugu guk ikasleok zu eta zure kidekoengatik. Batzutan, esamina bat suspenditu diguzulako. Beste batzutan, ikasgai bat hurrengo egunerako ikastera bortxafu gaituzulako. Beste zenbaitetan, euskaldun «kolorerik» ez duzulako. Hara nola «esto ez azi» esaten duzunean. Kasu honetan ordea, far egiten dugu askotan baina ez digu euskaldun izenekooi minik eman ohi zoritxarrez. Beste batzutan, eta ia ez hain maila tipian, «antipedagogikoa» zarela. Hara!

Hariari erosoagotik atxikiz ordea, galda dezadan zera: zu zertarako zaitut? Alegia, irakaslea zertarako behar dugu? Nik honela erantzunen nuke esaldi batez: hots, ikaslea hezibide batetan itsasteko, sartzeko.

Izan ere, gu zertarako gaude mundu honetan?

Bizi behar dugu bai, baina gure irakasleen irakasaldiak ez dira ene ustez titulo eder bat eskuratu eta «viva la pepa» bizitzeko bakarrik izan behar.

Bestalde, zuk irakasle horrek Matematikak eta Phisika irakastea ongi dago, oso ongi. Baina ez dut uste zure lana hortan mugatu behar duzunik, zeren eta nere ustez hori bakarrik hutsaren hurrengoa da. Egun, nehoiz baino gehiago behar ditugu tituloak eta eskuratzen saiatu behar dugu: nahiz gure on pertsonalerako, hala ikastola eta gainontzeakoetarako.

Ez diot nehorri heziketa intelektual bat behar dugunik ukatuko. Zuri ere beraz, mota horretako irakasaldiak gogo onez hartuko dizkitzut. Baina hori bakarrik deus guti delakoan nago. Zenbat eta zenbat lizentziatu nahiz katedratiko arin dugu gure artean? Zertarako dira horien jakinduria, irakasle ezezagun? Ez ahal zaizu iruditzen heziketa intelektual bat hartzea bezain garrantzitsua eta beharrezkoa dela gizon izaten ikastea? Hori ordea, geurekiko eta bakar-bakarrik ez dugu nehoiz ikasiko. Hortarako zu eta zure kideak behar ditugu. Irakasle zentzudunak, heziak, GIZON direnak, askatasunean heziko gaituztenak, eta ez heuren bizibide edo profesioa heurari ona iruditurik handik edo hemendik guregan itsasten ahaleginduko direnak. Beraz ene irudiko baduzu beste zeregin bat, eginkizun handia, garrantzitsua eta zaila: gu gizon izateko bidean ezartzea.

Hor daduzkagu begi biak arras ireki beharrik gabe ikus ditzakegun hainbat eta hainbat gai bere garaian eta behar den bezala azalduz ez direnak. Hara nola erlijioa —utikan bachileratoan erabiltzen ditugun «Religión» izeneko zenbait texto!—, seksualitatea. Gure giroa ere aztertut beharra dagoela deritzat; ezin gintezke beste gabe edozein haize boladari atxiki. Esate baterako Elizaren aldeko aurkako esames eta kritika gehiago entzuten dugu —ez dut esan nahi arrazoizkoak zeintzu diren, ez noa horretara—, maitasun edo amodio libreekiko joera bat dakusagu zenbaitengan, eta abar. Beno, bada, joera horiek aztertzeko gaitasun bat behar dugu eta gehienek onartzen dituztelako, beste gabe ez gaitzaizkie atxiki behar. Gaitasuna esan dut, bai, gaitasuna! Orientazio bat behar dugu, eta orientatzaileak nortzu behar dira izan? Beste batzuen artean, irakasleak: zu eta zure kideak.

Zuk ere ordea, ez gaituzu nola edo hala zeure ideologiarenpean —ona ala txarra, edo beste nolabaitekoa— murgilarazi behar. Ez, ene ustez eta lehen esan bezala askatasunean, bideak erakutsiaz, baina aukeramen eskubidea ken edo ebatsi gabe.

Bestalde, guk pertsonok, grinaz beteriko norbaitzu gara. Abesti batek dioen bezala, «pasioen almazen» bat. Ongi ala gaizki, baina gu hori gara eta kito! Hortan geratzea ordea, deus zuzena ez delakoan nago irakasle. Pertsona, grina horiek gaituzten ahal izateraino hezi behar dugu. Eta horretan ere, ene ustez, zuk irakasle baduzu zeregin, eta ez guti ere. Bai alazankoa!

Gaurregun, oztopo anitz dugu. Grinak asetzen dizkiguten bide asko. Errax, deus zailtasunik gabe abia gintezkeen bide anitz. Dela zenbait «club» eta abar. Bada horiek zer diren, beren zenbait ondorio eta beste irakastea ere, zure lana dela deritzat hein batetan bederen. Ez arras, ez!

Argi eta garbi gura bedi zera ere: hots, zuk irakasle horrek —nahiz eta ikasgelatan gu baino hamar zentimetro gorago egon— ez duzula zeure interesetarako gu ikasleok erabiltzeko inondikako eskubiderik. Alegia, zu zeu irakasle izan arren, bizitzaren udaberriaren gaudenok nahi duzun erara manaiatzeko eskubide gabea zarela. Zenbaitetan ordea, ez dirudi zoritxarrez!


Bestalde zera esan behar dut, nahiz eta agian datu ttontto bat izan: hots, zuk, zeuk ematen duzun exenpluaz asko irakatsi zenezakeela ikastetxe batetan. Ez ordea zera eginaz esate baterako: zeuk zigarro bat erretzen duzularik, ikasleoi ez erretzeko esanaz. Nik neuk irakasle, ez dut erretzen eta zigarroak ez nau erakartzen beregana. Baina badakit kasu hauetan ze giro sortzen den ikasgelan.

Ahaztu baino lehen zera ere esan dezadan: alegia, Euskal Herrian sortuak garenez eta berak bizilekua eman digunez, gizon soil izaten bakarrik ez diguzu lagundu behar; GIZON EUSKALDUN izaten ere bai, baizik! Baina oraiok hori pentsatzeari, utopia batetan murgiltzea dela deritzat. Irakasle ofizialen aldetik bai, bederen —zu zeu ez dakit ikastetxe ofizialekoa ala eskola partikularren batetakoak zaren; ez dit axola—. Badira ordea bestelakoak, hots, elizaren eskuetan dauden ikastetxeak. Hauetariko irakasleoi doakie batipat dei hau.

Zu zeu ikastetxe ofizialekoa bazara, ez pentsa arren dei honetatik salbo zaudenik, zeren eta bide zailagoa izan arren zuk ere bai bait duzu alde horretatik zeure lantokian zeregin. Eta eskola pribaturen batetako bazara berriz, nahi duzunean duzu garaia.

Beste gabe agur, eta aurrera!

TRIKUARRIETA



Umeari bere bizitza egiten utz



Donosti'ko  
Erri-Etxe'ko Aurreki Kutxa



**EUSKAL IRRATI  
SAIOAK**

Banen baneko azikai  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak  
Erosi edo berritzeko diru  
aurreratzea  
Baserri, lur-tresnak ta aber  
Torelavega'ko Perira Joan  
etorriak

**Baserriaren alde**

# LIBURUAK

## MUNIBE 73

Joan den alearen aurkezpena berandu egin baguen ere oraingoan garaiz gabiltzalakoan nago, oraindik berri usia baitario.

Era ezberdineko lanik eskaintzen badigu ere, bada bat benetan beharrezkoa zena, zera alegia, orain arteko MUNIBEtan agertu diren lan guzien indizea, aurkibidea.

INDICES DE MUNIBE. AUTORES, MATERIAS, RECENSIONES.

Jesus Elosegui Irazusta

Honela hasten du bere lana: Muniben lehenengo 24 urte hauetan (1949-1972) agertu diren lan guzietan aurkibidea dakarkigu oraingoan; bai egileen izenak, bai gaiak beren izenburuz aurkitzeko era. Gaiak sei zatitan zatitu du: Geologia, Botanika, Zoologia, Antropologia, Aranzadi —Elkarte bezala— eta Denetikoa. Gai bakoitza gai txikitik banatu du, honela bilaketa erraztuaz.

HALLAZGOS DE OSO PARDO EN CUEVAS DEL PAIS VASCO

Jesus Altuna

«Lan honetan Euskalerriko paleontologi-aztarnategietan aurkitutako hartz-hezurak aztertutako ditut. Batzuen hezurdurak oso osorik irau du gaurdaino eta hauen hezur gehienak bildu ahal izan dira. Hartz hauek nekoguloaldian hil ziren bezala aurkitu dira. Hartz batzuk Wüum izotzaldikoak dira. Beste batzuk berriz izotzaldi ondorengoak. Hezur guzien neurriak eman ditut. Beren buruhezurrak ere aztertutako ditut, orain Pirine mendietan bizi diren hartzekin alderatuz. Azkenik hartza eta lezehartzen arteko ezberdintasunak aztertutako ditut, bai morfologia eta bai biometria aldetik».

Aurkiketa hauek Oinatiko eta Eibarko Espeleologiko taldekoek egin dituzte. Hogei orrialde baino gehiago ditu argazkiz beteak.

EL DIAPIRO DE ESTELLA

Reinhard Pflug

Bonn-eko (Alemania) Unibersitatean, dotore titulua erdiesteko egindako geologi lana dugu hau.

Estella inguruko diapiroa aztertzen du hemen. Estella, Monte Jurra, Monjardin eta Zufia tartean aurkitzen da batipat. Zer den diapiro?

Gatz-tsu diren harkaitzak ur-egarririk dira beti eta berau zupatzean hazi egiten dira. Haztean lur azpitik gora egiten du eta kanpora irten, gainean eta inguruan zituen beste mailak, estratoak aldatuaz. Horixe da diapiro bat. Goi-goi mailako lana hemen aipatu duguna.

NOTA PRELIMINAR PARA UNA TIPOLOGIA ANALITICA DE LAS HACHAS PULIMENTADAS.

Antonio J. Fandos

Haizkora leunduak, suharrizkoak noski, nola diren adierazi, neurtu eta sailkatzeko, klasifikatzeko behar diren irizpideak, kriterioak mintzo zaigu egilea. Haizkora bat behar bezala ezagutzeko beharrezkoa arkeologozentzat.

NUEVOS DOLMENES EN LA SIERRA DE URBASA (NAVARRA).

Fermin de Leizaola

«Lantxo honetan Urbasako Eskiza zelaiaren inguruan, Obas izeneko lekuan aurkitzen diren bi trikuarrien berri adierazten dugu».

«Trikuarriak, diru-gosez, hondatuak izan dira, eta lehenbizikoak bakarrik ditu bere tokian hilobiaren harriak. Idatz lana zenbait irudiz eta argazkiz ornitzen dugu, irakurleari ulert-errazago gerta dakion».

EL GRUPO DE SANTIMAMINE DURANTE LA PREHISTORIA CON CERAMICA DEL PAIS VASCO

Juan Maria Apellaniz

Hasieran konzepto batzuk argitzen ditu. GRUPO DE SANTIMAMINE-ek zer esan nahi duen —guk SANTIMAMINE-NEA deituko genioke—. LOS HUSOS-ENE-tik berezten du. Lehenengoa Euskalerriko goi aldeak lirake, menditsu den parte. Bigarregoa Hego aldeak. Los Husos Arabako Elvillar herri ondoan dago, Laguardia inguruan. Elkarrengandik berezten duten alderdiak argi eta garbi agertzen ditu, berak dakusanez.

Gero Santimamiñenekoak aztertzen du zehatz, Erromatar, Brontze, Eneolitiko eta Neolitiko Garaiak igaro ala.

Lan hau, datorren MUNIBE ale extraordinarioan agertuko den bere azterketa lanen ondoren etorki bat besterik ez da. Hain zuzen orar hau etorri zaigu eta hemen doakizu zuri ere interesgarri izanen zaizulakoan:

«Datorren MUNIBE lumeroa, 1973-ko XXV garrenaren eransketa berezia izango da. J. M. Apellaniz-en ego Euskalerriko Brontze-arako oroi-tarri eta ekaiaik du gaitzat; gure herriko triku-arrien zerrenda gaurkotta doalarik bertan».

Alea, irudiz aberaski apaindua eta 400 bat orrialdekoa izango da, eta gure elkartearen ahalmenatik kanpo dagoenez gero, ezinezkoa dugu lumero hau bazkideen artean banatzea; salgai ezartzera beharturik gaude.

Horrengatik, derriorezkoa zaigu zenbat bazkide egongo den interesaturik jakitea, moldiztegiaren lumero zehatz bat eskatu behar baidugu.

Bazkideentzako salneurria 500 peztakoa izango da (guri kostatzen zaiguna), eta beste gainerakoentzat 800 peztakoa.

Baldin esandako alea eskuratu nahi bazeneza, esaiguzu mesedez, eta horretarako aski duzu zure izena gure elkartera bidaltzea».

MUNIBE, 1973 2/4 ARANZADI NATURA ELKARTEA. MUSEO SAN TELMO. DONOSTIA.

M. Aizpurua  
Aranzadi Elkarteko

## Ez Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

# FANDERIA

## ERRENTERI

# Donostiako Zine Jaialdiaren gaitzak

Zine Jaialdia bukatu ondoren zenbait egun pasatzen utzi nahi izan dut. Korrika ibiltzeak beti ekarri ohi du kaltea. Nere ideiak sutsuegiak iruditzen zitzaizkidan; zangoak ere neka-neka eginik nituen zorioneko Astoriaren soilari ostikoka. Hobe beraz haserre, oihu, ezarritinak, zoritxar eta nahigabe guztiak hozten utzea.

«Star» guztiak utzi gaitzute, Victoria Eugenia aretoko argi distirantak itzali dituzte; kazetalarik, zinegile eta «pajaritadunek» ere bai. Bazen ordua, arraioa! Orain, patxada orotan, zenbait ondore atera dezakegu Xlgarren Zine Jaialdi hontatik, ene ustez. Hortara noakizue.

Zoritxarreko Jaialdia izan dela diot. Inora ez daramaten bidetarik abiatua, erorrik gabeko Jaialdia, betiko hildoari jarraitu dio, «beste bat gehiago» esan ohi den horietako Jaialdia. Hutsa! Itxura handikoa, jendetza biltzen duen Jaialdia, horratio, bainan sakontasunetik urrun dagoen Sariketa. Cannes-en adina zinegile eta artista bildu zaigu, pertsona handi horietako ugari. Egunkari, kazetalarik, irrati eta komunikabideak, bakoitza bere aldetik, larri aeko ibili zaizkigu denetara iristeko. Baina hori ahal da dena?

Argiak izan gaitzean. Zer ikusi dugu? Zer itxaron genuen bada? Zer erakus zezakeen Aukeratzaille Batzordeak? Hor datza, ene ustez, kakoa: ahal duena, nahi izaten duena egin du alegia eta egiaz, Batzorde honek ez digu behin ere ezer askorik eskaini ezta eskainiko ere. Presupuesto ekonomikotatik abiatuta, ez du kulturazale-tasunik ageri.

Aurtengoa, sariketarik onenetakoa izango zela esan ziguten. Aurrean dut Alfonso Sanchez-ek esana: «Altman, Wisw, Fabri, Wajda eta bestek film onik ez badigute eskaintzen, berorien erruz dateke eta ez aukeratzaille Batzordearenaz». Nik ez dut uste hori egia denik; zinegile bakoitzak bere lanetan, sarri ezagutzen du egun argi eta iluniki, obra borobil eta kaskarririk. Bestalde, autoren izen handian oinarritzea ez da serioegia. Eta bestela fruituei begiratu, Wajda, Bogdanovich eta Ericce gaztearen lanak ez dira txantxetakoak, baina behar bada gutxiegi. Gero, sariak banatze-ko orduan, begiak nora bihurtu dira...

Mitoak lurreratu behar ditugu: ez Altman, ez Hutton ez Frank, ez Wise, ez Lelouch, ez Lacko, ez J. Molina, ez Lattuada, ez Batalov, ez Guerri Hill dira Zine Jaialdi serioa osatzeko gauza. Egunkariaren lerro luzezenak, berriz, horien pelikulen berri emateko izan dira. Zoltan Fabri, Bernhard Wicki eta Robert Fleischer-entzat, isiltasun iluna. Zergatik? «Monstru» horietakoak falta ziren. Baina gutxienez be-

netako filmak ziren, bere erditasunean. Eta gainera, eztz ikusi «The Wedding»?

Betiko filmak, artista famatu ugari osatuak, bainan hutsak, pipiz jotako pelikula kaxkarrak. Glenda Kakson, Liz Taylor, Francois Fabian, Lino Ventura, Giancarlo Giannini, George Segal eta beste zenbat artistaren azalaketak ez du ezertxo ere adierazten: artista onak, bai, bainan pelikula hutsak, nazkagarriak, zinea hil zorian uzten duten pelikulak. Bide hortatik zinea huskeriatik huskeriara doa. Gizonen eta gizartearen harremanak aztertzen direla esatea, esan den bezala, pelikula gehiegi ez dela ikusi garbi garbi adieraztea dela iruditzen zait. Badakigu gizonen prolemak hartzen direla gai bezala baina ezjakintasun gorrian amiltzeko. Noiz esango zaigu zerbait, esate baterako, gizon-emakumeen larru gorriak direla medio? Ni ez nago gauza horien aurka. Baina gauza horiek aspaldi ikusiak gara. Noiz arte ikusi behar ditugu bular, laztan eta ohe-jostaketak... barruan beste ezer ez duten ohekeriak! Jendeak, gazte jendeak, alegia hori berbera adierazten zuten, «Two people»-k eman zigun ohe-saioari txistu jo zionean. Lindsay Wagneren gorputza ez zen bada itxusia, alajaina! Nik, gauza bat ikusi dut Zine Jaialdia osorik ikusirik: jendea engainatzea ez dela hain erraza eta benetako pelikula zein den, gutxi gora behera antzematen diola.

Zensuraren ahalmenak noraino heltzen diren ez dakit, baina nondik ari den arintzen, bai. Noizkorako gure artean «La classe operaia va in paradiso», «Clockwork orange», Fellini osoa, Bartolucci eta Godard, azken Huston, Pasolini eta Jodorowski? Noizkorako munduan zehar egiten ari den «zine politikoa»? Damianik egiten duan zinea erraz egosten den zinea da, eta «Harry el sucio» bezelakoak, nik neronek, fazista banintz, benetan banatuko nituzke... Baina jendea, nik ikusi nuen, ez da lozorroan ezereztua. Ez horixe!

Ez Hego Ameriketako filmerik —Juan Moreira ezik—, ez egun egungo zinerik harrigarriena, Suiza eta Canadakoak, alegia, genuen ikusi.

Donostiako Jaialdi honek ez du benetako etorkizunik. Burgeskumeen artean behar bada bai, mitozale txatxuen artean ere bai eta egia menperatzaileen artean zer esanik ez! Jaialdiaren hutsuneak betetzeko, Bergman, Zefirelli, Welles, etab. ekartzen dizkigute... baina hori besterik da. Baina... beste Kasinoz arduratzen ari den gizonetik zer itxaron diteke? Zinezaleentzat, zine-areto bereziak ala... dirua uzten duen pseudokultura madarikatua?

Jesus Mari Zalakain

## GOZTON GOENAGA GORRITI

Egunkarietan barrena zabaldu denez, irailaren 29an hil zaigu nahiko era triste batez aita Gozton Goenaga jesulaguna.

Zegaman jaio zen 1915garrengo martxoaren batean. Aita zena farmazia gizona zuenez gero Betelun eta Azpeitian ere bizi izan zen.

1930garrengo Abuztuaren 3lean sartu zen Loiolan Jesulagun. Loiolan, Marneffen (Belgica) eta Oñan egin zituen ikasketak. 1945garreanean, Uztailaren 30an, apaiztu zen.

Eliz-lizenziaturaz gainera «Filosofia y Letras»-ekoa atera zuen Barcelonan Madrilliko Complutense-n, berriz, doktoradua. Notarik bikainek atera zituen bietan ere.

Geroztik, 1967 garreanean, Ipar-ameriketara jo zuen Euskal gaiak aztertzera.

Irakasle leku hauetan izan da: Indautxun, Gran Canaria, Iruñen, E.S.T.E.n, Ipar-

-amerikako Siracusan eta orain EUTGen.

«Jesus'en Biotzaren Deyan» eta «Zeruko Argian» atera izan dira Gozton Goenagaren lanak.

Beronen euskerazko lanik ezagunena Hemigway-en «Agurea ta Itxasoa» euskeratzea dugu agian.

Eta bere azterketarik sakonena «HUTS» euskal hitzari buruz behar bada.

«Jaun de Altxate»-ren hitzurreari buruz atera zuen, behar bada, enskerazko bere azken lana GEROREN PIO BAROJA deituriko liburuan.

Gaztelaniaz, berriz, bi liburur utzi dizkigu erabat burutuak: «Breve exposición sobre la figura del P. Olabide» eta «Algunas categorías semánticas de la lengua vasca».

Aita Goenaga euskaltzain laguntzaileetarikoa bat genuen. Goian bego.

IRAOLA

THE LONG GOODBYE



TWO PEOPLE



THE LAST PICTURE SHOW



A TOUCH OF CLASS



SONO STATO IO



SOYLENT GREEN



**usurbil**

**KULTURA ASTEA**

Uda osoan bizi festatan Usurbil; San Juanak eta San Rokeak Kalexarrean, Santioak Zubietan, Santa Ixabel Usurbilgo kalean, San Estebanak Sanestebanen, San Franzisko jaiak Aginagan.

Baina dena ez da jai huts eta festa huts. Kultura aste egoki bat eratu dute udazkenaren hasieran.

Lehenik pintura erakusketak eta liburu eta disko azoka bikain bat egin da egunero. Izan dira euskal musikako saioak ere. Abeslariak, koruak, trikitilariak.

Baina hitzaldiek izan dute, talde batentzat behintzat, arrakastarik haundiena. Kondaira, ekonomia, literatura, ikastola, bertsoak eta abar jorratu dira jende ikasia hizlari izan delarik.

Ez du aitzakirik izan aste honek. Agian, hontan orain arte arduratu den zenbait jendekin gehiago kontatu behar zen. Ea beste baterako akats hau zuzentzen dugun denon artean!

**UDALETXEA**

Asko saiatu da aurtengo urtean kaleak txukuntzen eta bideak konpontzen. Ederra geratuko da frontoi atzea Joxe Luis Zumetak bere lana bukatzen duenean. Eskoletaz ere asko arduratu da. Udarregi patronatoa bide zuzenetik sartu du. Iritxi du Udarregi Estaduaren diru-laguntza. Euskal alderdia gehiago landu beharra dauka oraindik.

Ez al diteke Udarregiarentzat ematen zen diru-laguntza hori, ikastolara zuzendu?

Dena den Udaletxean gizon berriak sartuko dira udazken hontan. Hasitako bideari jarraituko dioten gizonak aukeratu behar dira. Ez gaitzela txikieriek elkarrengandik zati.

**HILAK**

Jende asko hil da azkenaldi hontan. Hiru behintzat elkarren errezkadan.

Agerre-txikin, Franzisko Alkorta, 76 urterekin.

Ugarte-Etxeberrin, Xanti Illarremendi, 9 urterekin.

Buenabistan, Antonio Makazaga, 64 urterekin.

Zeruan gerta bitez denak.

**ANDATZA**

**bergara**

**EGURATS-TOKIAK**

Beribilek, geitzean, zer esanik ez dago, bere tokia beardutela, bai ibiltzeko, bai geldirik egoteko. Esan liteke errietako bazter guztiak izugarrizko geltoki bihurtu dirala.

Erri bakoitzean, oiñezkoak, beribillak bezelaxe geituz doaz.

On Errupino Beitia, erri ontako Alkatea, ezagutu genduan. Bere agindupean ainbat egin on utzi zigun errian bearrezkoak ziranak, bainan zoritxarrez, On Errupino alden du zan bizien mundutik garrantzi aundiko lan bat eskuartean utzirik.

Bergara, agurats-tokien bearrean arkitzen da, bada orain ezagutzen ditugunok beribillen bidean daude.

Bein batean alako gizon xaar talde bat urreratu zitzaion eskabide batez eta sasoi artan ez zan beste mundua eskatzen zutena.

Zuek, dakizute, Deba ibai baxterretik alako bidetxo bat igarotzen dela; bide au, Etxe-Aundikoan asi eta leengo burmibidearen azpitik Agorrosiñera eltzen zala, gero andik, Ondartzako zubira eta azkenez, Errota-Erdikoan bukatzen zan.

Gaur, bide ori, eguratstoki ori, galdua arkitzen da. Agorrosingo ukondoa 1953ko uraldiak ur presa austean bide ori menderatu zuan, auzak bakarrik ibiltzeko tokia utzirik.

On Errupinok bere asmo ederrak bazituan, bide onegaz errian premia ikusten zualako eta, luzera ikusi degu, ikusten ari gera, Bergarak, beardan bezelako egurats-tokirik... Jai!

Ez dakigu noiz, autopistako lan-tekak laixter asiko ote diran zurrumurrua dabil errian; au, gogoan eukitzeko arloa izango da ba oiñezkoak bai ibiltzeko bai geldirik egoteko, bere tokia bear du.

Joan dan ostiralez, illak ogeitabat, San Pedro eliz nagusian, ospatu ziran Amasorain eta Zenitagoia tar Txominen il elizkizunak.

Ezagun zan gure Txominen zenbat lagun zuan; San Pedro eliza aundia izanarren txiki arkitzen zan ainbeste jende artzeko.

Bergarako euskazaleek konturazten gera zer kalte izan degun gizon jator eta trebe au galdu deguean. GB Txomin. Izan dezala betiko argia.

**MENDIKOI**

**lesaka**

**EUSKAL JAKINTZAREN ASTEA**

Urriaren 6tik 14era eginen da aste hau. Bada honelako gauzen beharra Lesakak. Asko hazi da. Erdal jendeak euskaltasuna arriskuan jarri dio. Bidezko da etorkinak ere euskalduntzea eta bertakoak esnatzea.

Egitarau bete eta egokia eratu digute.

6an, larunbatez, gaueko 10,30-etan: Antzerkia: **ARALAR**, Intxitxu taldeak.

7an, igandez, Arratsaldeko 5etan: **BERTSOLARIAK**, Arozamena, Lasarte, Lazkao Txiki, Igarzabal eta Agirre. Gainera, Antxon Balberde, abeslaria.

8an, astelehenez, 8etan **BERTSOLARITZAZ** Juan Mari Lekuonak hitzaldia.

9an, asteartez, 8etan, **EUSKAL POESIA ETA MUSIKA** Lete eta Arze hizlari.

10ean, asteazkenez, **EUSKAL GIZONA GAUR**, J.M. Satrustegik.

11an, ostegunez, **NAFARROAKO FUEROAZ**, Zubiaurrek.

12an, ostiralez, goiz eta arratsalde **DANTZAK**: Lesakakoak, Baztangoak, Iruñeko "Oberena" taldea eta Iturengo Zanpanzar.

13an, larunbatez, gaueko 10,30-etan: **ABESLARIAK**.

X. Lete  
L. Iriondo  
B. Lertxundi  
J. Lekuona  
Peio eta Pantxo  
Lesakako "Toberak"

14ean, igandez, **EUSKAL MUSIKA JAIALDIA**.

Hortaz gainera aste osoan Baztan-bidasoako esku-langintza eta margolarien erakusketak kasinon.

Baita euskal disko eta liburu azoka ere, Herriko Etxeko arkupean.

**IRAZOKI**

**oiñati**

Gure erriko berriak berriz ere ZERUKO ARGIAN eman nai genituzke. Eta gaurko lantxo au zera izango da, zenbaki bidez Oiñatik egoera adieraztea, alegia. Literatura maillan lan ederra ez bada ere, gure erria ezagutarazteko dato egokiak dirala uste degu. Ona emen.

**JARKERA**  
1° 18' 30" Sorkaldean eta 42° 2' 3" Iparraldean.

**BIDE SAILAK**  
Donostia 75 km.  
Bilbao 65  
Gasteiz 47  
Iruñera 100

**ZABALUNEA**  
108'22 km.²

**ITXAS-MAILAZ GORA**  
234 metro

**BIDEAK**  
34 kilometro

**MENDI GORENENAK**  
Akaitz 1.324 m.  
Botreaitz 1.317 m.  
Gorgomendi (Aloña) 1.238 m.

**ETXE-BIZITZAK**  
2.400 inguru

**BIZILAGUNAK**  
10.729 bizilagun (1972-XII-31)  
3.337 16 urte arte  
6.567 16-65 urte arte  
825 65etik gorakoak

**IRAKASKINTZA**

Joan zen ikastaroan	Gelak	Aurrak
Ume txikiak	11	350
E.G.B.	30	1.182
Institutoan	17	500
Aministratiban	12	180

**UDALETXEKO ARDURADUNAK**

Aministrazioan	10
Ertzainak	13
Beste zerbitzutan	30
Alkate 1	
9 Zinegotzi	

**PRESUPUESTOAK**

24.435.653,— pta. aurtun

**LANTEGIAK**

Guztiak	73
400 langiletatik gorakoak	2
100 etik-400 era	11
100 etik beera	60

**LANGILEAK**

Denak 3.250

**BASERRIAK**

500 etxe bizitza inguru  
16 auzotan

**BASOAK**

Orain 11 urteko zenbatzan:	
Pinudi eta lizeiak	4.187 Ha.
Arte eta Aritzak	213 Ha.
Pagadi, Gaztaina eta makal	1.786 Ha.
Gaur Udal-etxearen pinudiak	530 Ha.

**DENDAK**

92

**JAN-EDARI ETXEAK**

45

**ABERE TALDEAK**

Abelgorriak	1.830 buru
Zalditan	600 buru
Arditan	3.650 buru

**ERLIJIO ETXEAK**

3 Parrokia  
1 Basilika 1

2 Fraile etxe  
3 Moja etxe

**OSAGARRI ZERBITZUAK**

3 Botika  
4 Sendagile  
4 Senda-laguntzaile  
1 Albaiteroa 1

**OSTERANTZEKOAK**

6 Pelota leku (4 estalita)  
8 Gizarte errikoiak  
Gazteen batza 1  
Kirol-batza 1  
Gaxo eta zaarren etxe 1  
2 Dantzari talde  
Txistulari talde 1  
Txistulari irakaskintza 1  
Antzerki taldea  
850 Urrutizkin  
1 Su-arauen elkarte (285 bazkiderekin)  
2 Indar-etxe  
Abesti taldea  
2 Dantzari talde

**PASAI DONIBANEKO**

**LEHEN EUSKAL JAKINTZA ASTEA**

URRIAREN 15etik -21ra arte

**ASTELENA 15**

Gaia: "EUSKAL EKONOMIAZ".  
Hizlaria: Inaki Larrañaga.

**ASTEARTEA 16**

Gaia: "EUSKALERRIKO PREHISTORIAZ".  
Hizlaria: Benantxio Otaegi.

**ASTEAZKENA 17**

"AMA LUR" filma.  
Ordua: Arratsaldeko 6etan (umeentzat).  
Arratsaldeko 9,30etan (handientzat).

**OSTEGUNA 18**

Gaia: "EUSKAL IKASTOLAZ".  
Hizlaria: Txomin Izagirre.

**OSTIRALA 19**

Gaia: "FOLKLOREAZ".  
Hizlaria: Gaizka Barandiaran.

**LARUNBATA 20**

"EUSKAL JAIALDIA".  
Abeslariak:  
XABIER LETE  
LURDES IRIONDO  
GORKA KNÖRR  
OSKARBI Taldea  
OIHARTZUNAK Taldea  
Ordua: Gaueko 9,30etan.  
Lekua: Herriko Frontoian.  
Ikastolaren alde.

**IGANDEA 21**

**DANTZARIEN JAIALDIA**  
Oharra: Hitzaldi guztiak, arratsaldeko ZORTZIETAN (8etan), herriko zineman, ospatuko dira.  
Urriaren 18an, arratsaldeko 6etan, umeentzat zuzendutako ANTZERKIA ospatuko da.

**MUEBLES**

**URRETAVIZCAYA**

1928an sortutako etxea  
ERREDIZAK - EBERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS. 48

GAZTEIZ (Vitoria)

**TRANSPORTES azkar**

**ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK**  
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostia egunero:  
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alcantar, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:  
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.  
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA  
Telefonoak: 430313 eta 458723  
Aptdo. 1381  
Aptdo. 1381

**15 urtetatik gorako**

**neska gaztea**

behar degu Donostian bizitzeko, egunean sei orduko lanaren truke, etxea eta jana izango du bere adiñeko neskekin batera. Jo 410054 telefonora.

**ERAMAN - EKARRIRAKO**

**AGENCIA**

**Transportes A L E**

**EUSKAL IRRATSAIOAK**

**ERRI GUZTIRAKO**

Urrutizkinak: 421300 - 425723

Iparagarria, 8 - DONOSTIA

**bazkari onaren zainpargarria**

**eta txarraren estalgarria**

**LA CASA DEL CAFE**

Juan Iriondo

San Marzial, 19 - Urrut 413801

Do 10.00a



## errezil

BERRIRO Z. A.an

Aspaldian ixilik egon ondoren, berriro emen gaituzue, Errezilgo albisteak zuei, euskal irakurleoi, eman asmoz.

Lan bat asi aurretik, asko pentsatu bear izaten da, ondorenak, onak nai balin badira. Ni ere alaxenator. Aurretik ondo pentsatu det, zer lan artzera noan. Ta Errezil batek merezi dualako, EUSKAL HERRIETATIK saillean, egoteak, eta batez ere, nere Euskera zaletasunagatik.

Euskera besterik entzuten ez dan erri batean lan au egiten ez bade-gu, nor egingo ba? Orregatik serioski artu degu lan au eta aurrera eraman naiez asi gera gogotsu.

Ta gure ustea da, erri osoak on-tzat artuko duala erabaki au. Orregatik, albistariak bakarrik ez, erri osoak lan egin bear du. Gure aldetik ateak zabalik daude danentzat, eta orrela, danok bat eginik, xamurrago eramango degu lan au. Ekin diogu berriro eta orain, jarraitzea bakarrik geratzen zaigu. Aaleginduko gera.

ERNIOKO JAIK

Urtero bezela, aurten ere ospatu ditugu Ernio mendiko jaiak.

Mendira joan aal izateko, eguraldi ona nai izaten degu. Iru igandez, igandez izaten dira jaiak, eta erabat eguraldiak lagundu zigun. Onak izan genituan. Baiñan, illak 23an, irailla ain zuzen, zan egunik egokiena mendirako. Mikel goi aingeruaren aurreko igandea. Ain egun txarra eta bustia egin zigun, jendeak etxean gelditu bear izan zuan.

Ea, datorren urtean suete obeerago izaten degun. Aurtengoak joan dira eta zai gelditzen gera.

BERRI LABURRAK

Bost illabete dira, ezbear bat izan da, oeratu zala Aurburu-base-riko mutil gaztea.

Gure aldetik, auxe da opa dioguna, Joxe Iñaziori, leenbai leen bizkortu eta etxera dedilla sano eta salbo.

Datorren illean, urrian alegia, eta iru egunez, erabat, 12-13-14ean, as-to-demak izango ditugu Errezillen.

Beraien berri emango zaizue, sail ontan bertan, datozen asteetan. Zer sari, nor jokaturko diran eta nola gelditu diran.

Erri au nekazaria da. Ta aurtengo, entzuten danez, oso urte kax-karra degu. arto eta babarrunari dagokionez. Beste gailontzeko gauzetan berriz, ain txarra ez degula esan bear. Sagarra ondo da. Belar-ontzeko giro onak. Lur-sagarra ere poliki. Gero, preziotan ikusi bear-ko.

«ERNIO-arri»

## mallabia

HERRIKO JAIEN ONDOREN

Orain dela hilabete inguru igaro ditugu gure herrian "Andra Mari-ek" hau da herriko jai nagusiak eta antolatzaileetako naizenez, gaur laburpen bat egingo det jai hauek.

Gauza jakina da denok ez ditugula ekintzak berdin ikusten, gure herriko jaiekin ere hori gertatzen da. Nik nere iritzia emateko as-katasuna dudanez hala egingo det.

Lehendabizi jaiak nork, nola eta zertarako egiten ditugun jakinarazi nahi nuke eta bide batez Bilboko erdal egunkari batek Mallabiko jaiak agertu dituen astakeriak gezurtatu. Astakeria hoietakoa bat, jaiak 30.000pza. kostatu zirela, esatea da.

Aurten joan diren lau urteetan bezela herriko gazte taldea udal etxekoekin batera izan da jaien antolatzaile. Udal etxekoek zenbat diru zegoen jaietarako esaten digute, eta guk orduan erabakitzen dugu jaiak egin ala ez egin. Lau urte azkenekoetan baiezko erabakia hartu dugu, ez ordea orain dela bost urte, ez bait geunden konforme eskaini zitzaigun diruaz.

Diru laguntza hau izan ezik guk gazteok egiten dugu beste guztia: programa, dirua ateratzea (lan eginda noski), baimenak eta abar.

Jaiak zertarako egiten diren ez dago esan beharrik, baina bi galdera egin nahi nizkieke jaiak egitea folklorismoa dela, eta euskal jaialdi baten sarrera ipintzea burgesiaren gauza dela esaten dutenei.

Lehena: jaiak egitea folklorismoa bada ezer ez egitea zer da? Bigarrena: Euskal jaialdi bat kobratzea burgesiaren gauza bada, noren gauza da saletan txanpaina eta kubak edaten ibiltzea?

Guiztiok jakin behar genukeen gauza hau da: Gureak diren jaialdiek ez ditugun bitartean ez du euskal kulturak goi mailera egingo eta gure kulturari oztipoak jartzen gabiltzan bitartean besteena jasotzen gabiltzala, eta mesedez zuen benetako interesa hau bada esan zaizue arren, zeren horretara ez gera diskutitzen hasiko.

Goazen orain harira. Laburki, jaietako egun guztiei kritika bat egin nahi diet.

Lehendabiziko eguna (Umeen eguna). (Barkatu, aurreko egunean arratsalde eta gauz idi apustuak izan ziren) Umcentzat jarrita zegoen margo sariketan, etzen klasi-fikaziorik eman danentzat izan baitziren sariak. Gero tripa asetu arte txokolate jana; zeharo pozik geratu ziren gaztetxoek. Organiza-zio falta nabari zen.

Hilaren 14ean: Gau jolasa izan genuen SSCAPOLIS taldeak alai-tuta.

Urrengo egunean: Meza, hiru

dantzari talde ondoren:

Berrizko "San Lorenzo" Oñatiko "Oinatz" (Larrialdia pasa zuten azpiko tabloiak jausi ziraneraz gero) eta Mallabiko "Gazte Alaiak".

Ordu 2etan: III-Idaz lehiaketako sari banaketa. Zortzi lan baka-rrik presentatu ziren eta denak izan zuten saria hartzeko aukera. Nun dira Durangoaldeko andere-ñoak? Klasi-fikaziorik ez det eman-go, zeren astekari honen "zenbat gera" atalean agertu baitzen.

Arratsaldean: Durango aldeko "ERREGLAK" aurreko txapelketa eta ondoren Joxe Mari eta Mikel Usurbiltarrak, Eduardo Iriondo Elgoibatarra eta Lupe Bermio-tarra (Jaialdia amaituta gero hel-du zen) abeslariak. Altabozen ahu-lezia nabari zen.

San Rokez: Arregui eta Mugar-tegui Bizkaitarrak eta Narbaiza ta Larrañaga Gipuzkoarrak "Gazte Alaiak" dantzariekin osatu zuten goizko ikuskizuna.

Arratsaldean: Etxebarriko "S. Andres" antzerki taldeak, "Zein da Errudun?" Xabier Gereñon antzerkia eskaini ziguten eta esango dut jende guztiari atsegin izan zitzaio-la, bai obraren mamia, bai antze-larien lana. Ondoren dantza txapelketa Lezotarrak txapeldun geratu zirelarik.

Azkenez goizean aipaturiko bert-solariak; eta nola ez agertu "Mo-desto" soinu jolea bere bi hilerako soinuakin; Arregi bertsolariak bertso bat kantatuaz eman zion oroigarria beste 50 urtetan soinu josten segitzeko esanaz.

Zezen egunez: Tortilla eta paella sariketa, eguraldiagatik edo, ez ziren 3 baino gehiago presentatu.

Hilaren 19an: Jaialdia gaueko 10etan, parte hartu zutenak hauek dira: Lertxundi, Lete, Lurdes, Pan-txoia eta Pello abeslariak eta "An-dra Mari" dantza taldea. Jaialdi ederra izan omen zan bertara eto-rri zirenen ustetan; nik ere berdin diot.

Eguraldiak asko lagundu zigun eta izugarritzko jende pilla zen gau hartan Mallabin. Gutxi gora be-hera iaz baino 400 ikusle gehiago beraz.

Orain dela urte bete inguru Bil-boko euskal aldizkari baten Osko-rri Kanta taldeak esaten ziguna gezurtatu da Mallabin, zeren Oskorrikoek esaten zuten jendea as-pertuta zegoela euskal dantzariak eta abeslariak ikusten; eta ez dut uste Mallabin bakarrik gezurtatu denik, baizik Gipuzkoako hainbat herritan ere, ongi baino hobeto erantzun du jendeak aurtengo ur-tean zehar egin diren jaialdiei.

Parte hartu zuten guztiak erabat ondo bete zuten beren lana, eta guztiz txalotuak izan ziren denak batez ere Pantxoia eta Pello, Biz-kaian lehendabiziko kanta saioa baitzuten; hiru ordu terdi inguru-ko jaialdiari azkena emateko An-dra Mari-ek "Amaia" dantzatu zuten, jendeak ikusteko, arreta ge-hien jarri zuten dantza.

Esan beharra dut honako jai-al-dia Mallabiko alkate Eusebiori es-ker egin izan genduela.

Gaurkoz nahikoa dudala uste dut eta azkenengo eguna urrengo batean agertuko dut; beraz buka-tzera noa.

TXURRUKA

## azkoitia

KALE BERRIEN IZENAK

Aspaldian gure herrian anitz ka-le berri sortu zaigu. Izan ere etxa-gintza gogotik ari baita ugaltzen azken urteetan. Karrika berri hoi-ei izenak jartzea zeharo beharrezkoa zen. Ez gara gaur ipini dizkieten izenak egokiak diren ala ez azter-tzen hasiko, urrengo baterako utzi-ko dugu lan hau. Egun azaldu na-hi duguna zera da, alegia, ez du-gula inolako moduz onartzen ka-leen izenak erdara edo hobeki esan gaztelania hutsean jartzea. Euskal Herri osoan herri askotan ikusi ahal izan ditugu kaleen izenak eta baita herriaren izena bera ere le-henengo euskaraz eta gero gazte-laniaz idatzita. Gure herria hain euskalduna izanik, kanpokoen au-rrean arras deseuskalduna dela azaldu nahia dagoer honak. Itxura danez zenbaitzuri horrela komeniko zaio.

ARTE ERAKUSKETA

Antxieta etxean eta Lagun Onak mendizaleen bazkunari esker arte erakusketa bikain bat ikusi ahal izan dugu. Juan Luis Goenaga, donostiar gaztearena hain zuzen. Xoragarria eta liluragarria noski, erakusketa ikusten igaro genuen denbora. Zeharo murgildua geldit-zen bait da bat argazkiak eta kua-droak ikusten doan bezala. Men-dia, iluna, euria, taotsa, antzinako Euskal Herria eta gaurkoa, hona hemen guk eman genion interpre-tazioa. Merezki zuen bai, Antxieta etxera ikustaldi bat edo bi egitera joataek. Behar bada gure herritik ez zen jende asko inguratuko ta-malgarria da bainan ez da harri-tzekoa, izan ere ez bai dugu ego-kitasunik izan alderdi hori lan-tzeko. Gure artea eta artistak eza-gutzeko beharrezkoak ditugu, beste gauza hatzuen artean horrelako erkusketak eratzea. Zorionak La-gun Onak mendizale bazkuneko-i eta hanitz urtez Juan Luis Goe-nagari.

TXINPARTAK

## pasai donibane

EUSKAL KULTURA ASTEA

Asmo ederra eta bikaina herriko

zenbait gazte burutzen ari direna, alegia, "Euskal Jakintza edo Kul-tura Astea" bat antola nahiez da-biltzala.

Euskal Herrian horrelako "as-teak" eratzea pozgarria baldin ba-da, areago gure herrian; zeren, orain arte guk dakigunez, ez bai da horrelakorik santa sekulan muntatu

Euskal kultura gure herrian txer-tatzea nahi izatea, txalogarria da benetan; izan ere, haur garaian irakatsi ez zigutena, orain ikasi behar dugu. Aste hau, hil honen 15etik-21ra arte ospatuko dugu.

Z. ARGIA ale honetan bertan, zer-nolako gaiak erabiliko diren, ordua, lekua eta abar, ikus ditza-kezu.

Bailarako euskaldun guziei, dei egiten dizuegu, arren eta arren, etor zaitezte! Pasai Donibane-ko igo "Euskal Jakintza Aste" hone-tara.

Euskal aste hau, jakina, aginta-rien baimena lortuz gero, ospatu-ko da.

EUSKARA IKASTEN

Euskal Jakintza astea amaitu ondoren, euskarazko klaseak ha-siko dira. Antolatzaileek, herriko haizu eta kaleetan, zabalkundeak jarriak dituzte.

Zuk irakurle, zabalkunde ederra egin zenezake bai zure lantokian, bai zure etxe hauzoan.

Izenak, ikastolan edo Itxas-Men-di mendizale Elkarteak, eman di-tzazkeuz.

AITA GOENAGA

Ikastola, lehengo urratetik ja-rraitzen dugunok, ondo gogoan du-gu Aita Gotzon Goenagaren hi-tzaldia "Aterpea" aretoan edo bil-tokian, orain dela seiren bat urte. Bultzada ederra eman zigun hi-tzaldi harrek!


Eta horra nun jakiten dugun, joan den astean, Donostiako kale batetan hila arkitu dutela. Jain-koak emango ahal zion ondo me-rezitako saria!

HERIOTZA

Irairearen 30ean, Luis Azkarate Agirregomezkorta, "Donoxi" ize-nez ezagutua, 64 urtekin hil zi-tzaigun.

Bere emazte Juanitak, Jexus Ma-ri semeak eta gainontzeko fami-likoek, har bezate gure samnik beroena.

INALURETAK



# YANY

SUKALDEKO MUEBLEAK

EDERRAK BEZAIN EGOKIAK


FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)

# IKASTOLAREN INGURUAN

arteak ikastolaren alde  
euskararen  
arte erakusketa,  
arrate hotelean  
duako sarrera



30.9 / 31.10 1973

Aurtengo ikastaroa hasi bezain laster jakin dugu Getxoko "Egusentia" deritzan ikastolan gertatu denaz. Irailaren 30ean, eta urriaren lehen egundainoko uholdea izan omen zen Getxon, eta ufalak ikastola erabat aiferririk galdtu bide zuten.

Ura metro terdi hainako omen ikastolan barrena, eta horma inguruak eta beste kakaztuz gainera, irakasketa hainbat hilabetetako lana, fitzak eta zenbait material gutzit deseginak geratu ziren batpatean.

Getxoko ikastola hau orain dela bost urte sortua izan zen "Itxas Argia" mendizale elkartearen ardurapean, eta aurtengo ikastaro honetan 43 ume ari ziren bertan.

Ikastola honetako gurasoak erdi mailako ditugu, langileak batipat, eta beren ahaleginez, bultzakadaz eta diru-laguntzaz sortua da "Egusentia" ikastola. Orain, berriz, gertatuak gertatu, erabat suntsituak, nora ezean, geratu zaizkigu ikastaro berriaren hasieran bertan.

ANAITASUNA aldizkariak suskizio bat egiteko asmotan dihardu Getxoko ikastola horren alde, eta segurutzat ZERUKO ARGIAko harpidedunak ez gara motelago izanen. Beraz, inork nahi balu diru-laguntza edota bestelakorik bidali, badaki nora bidali. Aurrez mila esker.

● Eibarren ere bertako Mogel Ikastolaren alde ari zaizkigu. Non ez? Jakina! Baina, Eibarren nonbait, halako sistema berri batez baliatzen ari dira ikastolaren alde diru-laguntza bildu nahiz.

Herriko 27 pintatzailek nork bere kuadro bat eskaini du dohan, horretarako propio eratuak erakusketa orokor batetan agertarazia izan dadin. Erakusketa hau irailaren 30ean ireki zen Arrate Hotelean, eta urriaren 31 artean irekierik iraunen du. Tarte honetan, hogeita zazpi kuadroak zozketa batez eskainiko zaizkio herriari, eta zozketa honetaz bilduko den dirua gutzit ikastolarentzat izanen da.

Sarrituen izenak azken egunean jakinaraziko dira, baina bitartean beharko du Eibarko herriak anto-

lataileen asmoei erantzun, harako erakusketa bisitatu alde batetik, eta ahalik eta zozketa-txartel gehiago erosiz, bestetik.

● Diogun azkenik, 27 pintatzaile hoietatik bat mutrikuarra dugula, Mutrikun ere halako zerbait egin asmoz ari bait dira, eta, jakina, gero laguntza eskatu ahal izateko ez da aurrez ematen hasi baino besterik.

● Eta mutrikuarrak aipatu berri ditugunez, diogun ere, bertako ikastolak halako metalezko ikur bat moldatu eta eginarazi diola Mutrikuko bertako lantegi bati, ikastolaren alde zabaldu eta saltzeko asmotan.

Ikur hau —tokirik bada sail honetan agertzen denez— erabat biribila dugu, eta Gernikako Arbola-aren inguruan zazpi herrialdeetako ikur txikiak azaltzen dira bertan.

Atzekaldean, itzulitan alegian, eraskin bat du, aurtotan atxikitze bereziki burutu. Salneurria, berriz, 100,— pta. aleko. Inork nahi balu aleren bat edo beste eska bizaigu guri, edo, nahiago izanez gero, Mutrikuko ikastolari edota honetaz arduratzen den Andoni Arrizabalaga adiskideari (Tel. 60.13.37).

● Zarautzen ere ari dira aspaldi honetan. Salbatore Mitxelena izeneko ikastola aurrera doakigu abiada izugarrian.

1965 urtean, frantziskotarren laguntzarekin eta Parrokiaren babesean, "Antoniano Txiki" deitu tokiari hasi zen ikastola hiru andereño eta lehen-lehen mailako 120 haurrekin. Zortzi urteren buruan, aldiz, Zarautzo ikastolak 750 ikasle haina du (250 haur mailatan eta 500 E.G.B. delakoan) eta 24 irakasle, maixu, tituludun andereño eta lizentziaturen artean. Salbatore Mitxelena ikastola legez onartua dute

zarautzarrek 1972ko azaroaren 22tik, eta lege honek eskatzen dituen baldintzei jarraituz, ikastola berri eta bateratsu bat eraikitzeke garaia heldu zaie.

Dagoeneko lurra erosiak dira sei miloitan Ifurritza inguruan, eta gainontzekorik berez berez etorriko zaie guraso eta arduradunen arteko irakas-koperatiba eraz eta moldetz legetu ondoren.

Asmo hau agertaraziz, eta ikastolari dagozkion arazoei atxikiz, argitara emana da zortzi orrialde-tako aldizkari bat, euskaraz zein erdaraz, hontaz eta hartaz aipatuz, hots: Historia labur bat, Ikastetxe berriaren beharra, Inbentario osoa, Salbatore Mitxelena Irakas-elkartea, Elebiko Irakaskintza eta Liburu Zuria. Liburuxka hau, bestalde, argazki, plano eta ikastola sortu zeneko gora-beheren zerrenda batetik osatzen du.

Zorionak zarautzarroi, eta txalorik sutsuenak horrelakorik posible egiten ari direnei.

● Ikastolaren inguruan ere, Andoainen burutuak dira multikopiaz bi aldizkari txiki. Bati EUSKALDUNTZEN deritza, eta Eskola Nazionala haurren guraso elkarteak beren seme-alabak euskaraz alfabetatuak izan zitezen agertu nahi izan zuten eskabide eta ondorioei dagokie.

Bigarrena, berriz, EUSKARA JALKI ADI KANPORA izeneko dugu, eta andoaindar emakume talde batek moldatu duen inkesta baten adiarazle dugu. Inkesta hau herri xehearren artean egina da, eta euskaldungoari dagokio batipat, etxeko giroaz, haurrak ikastolara doazen, zer irakurtzen den euskaraz, hitzalditara joaten den, euskaldun zentzuaz etab. etab.

LUIS A. ARANBERRI



YOGUR  
**GURELESA**  
GOGOZKOENA



## EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA

Joan den iraileko 28an Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

Bi sariren irabaztunaz ezagutera eman ziren. "Eusebio Maria Azkue" olerki saria (25.000 pezeta), Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz jarria, Biktoriano Gandiaga-k, "Txakolinaren 2 ospatze" deritzan lanaz, irabazi du. Aipamen berezia irabazi zuten, baita ere, X. Lete eta A. Urretabizkaiaren lanek.

Bertso-papere sariketan, berriz, lehen saria (12.000 pezeta), Xalbador bertsolariak izan du, "Gure artzain etxolari" eta "Mendian galdut direnei" izeneko bertso berriakgatik. Bigarren saria, Kalonje, Matxain eta Olea-ren artean banatua izan da.

Euskal irakasle titulua irixteko, Arrasate eta Donibane Lohitzune-n egindako etsamena berri eman zen. Arrasatekoan hamabik lortu dute titulua, Donibanekoan bederatzik.

Euskaltzaindiko liburu-zainak, etxera diren liburuen berri eman zuen. Dominique Peillen-ek etnografiako hiru lan bidali ditu; Ned Thomas jaunak, "Planet" Gales-ko aldizkariaren zerbaki batzuk; Sabin Irizar jaunak, "Txingo. Gertaldi eta ibilkeriak", Gero editorialak aterea; Ibon Sarasola jaunak, "Gerraondoko Euskal Poesia (1945-1964)", Lur editorialak argitaratua; Ermua-ko Ardatz Rapid S. A. industriak, euskeraz eta beste lau hizkuntzaz egindako izendegi teknikoak. Industria sailen euskeraren alde nola lan egin erakusteko, balio lezake izendegi honek.

Luis Mitxelena euskaltzain jauna, Herri eta Herritarren izendegi prestatzen ari den batzordearen egoeraz mintzatu zen. Batzorde honek egin berri du bilera berezi bat, lana aitzinatu eta zenbait oinarriko puntu argitzeko.

Antonio Arrue jauna Donostiako Udaletxean egin berri den bileraz mintzatu zen. Bileran honetan euskal hiriburnetako Ayuntamentuen ordezkariak bildu ziren, euskeraren irakaskintza nola aurrera eraman eta bultzatu aztertzeko. Eskola testuak prestatzeko, Euskaltzaindiaren laguntza nahi lukete. Berri hauek oso pozik entzun ziren.

iBi euskaltzain laguntzaile berriak estreina-aldiko lana egin zuten, nork bere txostena batzarrean irakurri. Jose Migel Zumalabe jauna Etxegintza eta Arkitektura hiztegia antolatzean erabili dituen iturri eta ikasitako esperientziez mintzatu zen. Martin Ugalde jauna, berriz, literatura-motak euskeraz mugatzeaz, elkarren artean berezi eta izendatzeaz. Euskaltzainburuak ongietorria eta zorionak eman zizkien batzarkide berriei, eta halako elkar hizketa bizi bat piztu zen bi azalpen hoiendoren eta fruitu bezala.

Azkenik, A. Zatarain jaunak azterketa bat egin zuen "ñ" eta "ll"-ri buruz, eta azalpen honen ondoren ere elkar hizketa izan du zen, nork bere iritziak agertuz.

(Euskaltzaindiaren Prentsa Bulegoko Agiria)

## CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU-PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean  
— diruketa-saillean  
— lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI  
PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin oheak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi  
Aretxabaleta  
Elorrio  
Barakaldo  
Ondarroa  
Andoain  
Plazentzi  
Oñati  
Ormaiztegui  
Beasain  
Gernika

Zumarraga  
Elgoibar  
Markina  
Bergara  
Altsasua  
Eibar  
Tolesa  
Pasai San Pedro  
Errederi  
Billabona  
Gasteiz

Bilbo  
Legazpia  
Irun  
Durango  
Amorebieta  
Azpeitia  
Ernani  
Zarautz  
Sestao  
Ordizia  
Antiguo

Ermua  
Eskoriatza  
Izarra  
Ondarrabia  
Galtzaraborda  
Lekeitio  
Llodio  
Recaldeberri  
Agurain  
San Andres  
Azkoitia

Munguia  
Yurre  
Bermeo  
Lasarte  
Enanderian  
Santurce  
Zumaya  
Donostia  
Iruña  
Deba  
Anzuola

# Elizaren arpegia

(I)

Gure Joxelo Artaburu gizagajoa. Bera baiño amar urte zarrago zen Kaxildarekin maite minduta gelditu zen. Kaxildaren begiak. Nolakoak ote? Ez ziren noski nolanaikoak. Ezin ikusi ordea gure Artaburuk, kristal illunezko betaurrekoen azpian estalirik bai zeuden. Eta, Kaxildaren ortz-agiñak? Alako ortz zuri eta ederrik ez zen ez munduan. Kaxildaren irripar edo algara sumatzean, Artabururen bi begiek, maitearen ao barnean sartzeko irrikia bizi senti oi zuten. Ortz eder aiekin nere begiek txir-txilatuak izanik ere, zer neri?; ziotsan Artaburuk. Eta burutik bizkar gainera zijoakion ille-adats arro eta gozo ura? Bere Elizako Ama Birjiña Konzeziokoaren antzekoa, alajaiña.

Egiaren eguna sortu zitzaion, ordea gure Joxelo Artabururi: Ezkondu egin zen bere kutun Kaxildarekin. Maitasun epeleko gaua iritxi zitzaion gure bi maiteei. Aa zabalka, guztiz zozotuta, begira begira gure Artaburu bere Kaxildari. Bein ere berak ikusi gabeko Kaxildaren begi zoragarriak, laster ikusi bear zituen. Onek, betaurrekoak kendu, ezkerreko beatz txikarra ezkerreko begi zuloan sartu, kristalezko begia atera eta kopatxo polit batean ipintzen du. Milla demoniño! Jokoa gaizki asi diat —bere baitan zion Artaburuk—, begi bakarrekoa duk Kaxilda.

An zauden ordea, Artabururen begien aurrean, Kaxildaren ortz zuri hikaiñak. Auek ordea ez izaki nunbait guztiz egokiak lotarako eta leenbizi goiko ortz-agiñak eta gero beekoak, erdiraño urez betetako basoan arkitu zuten atsedean leku. Ortzik gabeko arpegi ximurrak ez zion egin on aundirik gure Artabururi.

“Buru beintzat polita zeukak” —bere buruari zion Artaburuk—; “orlako ille xarmantakiko emazterik ez duk”. Bere azken ilusioa laster zen lur jota. Kaxildak bere eskubiko beatzak zabaldu, buru gainean kokatu eta Gotzai baten solideoaren antzera, zillarrezko bandeja batean, poliki ipiñi eta gelditu zan Kaxildaren buru-gaiñeko ille xarmanta. Izutu zan oraingoa Artaburu, bere ametsetako Kaxilda, buru soilla, ia batere illerik gabea zan. “Aski diat, ezin diat geiago, nereak egin dik, ni banijoak, Kaxildaren bular zilbor eta gainontzetikakoak ere artifizialak dituk nunbait”. Eta Kaxilda bakarrik utzita, ies egin zuen gure Joxelo Artaburuk.

—oOo—

Aurreko ipui ori Elizaren konpara-bide artzeari, gordintxo baderitzazu, barkatu. Ain serioak ditugun gaien erdian, irrigarriko zerbaiti ere, bearrezko dela deritzat; gaur eguneko giro pisutsuan ito ez gaitzen.

Gure Elizari buruz, kristau hati baiño geiago ez ote zaio gertatu Artabururi Kaxildarekin gertatu zitzaiona?

Batikanoko Batzar Nagusi aurretik ez zen ez nolanaikoa gure Elizaren irudia. Orrelako pitxi zoragarriak. Utsegite, orban eta mantzarik gabekoa bezala agertzen ziguten. Kondairan zear, Eliza orrek izan zituen okerrak, arik eta geien estali eta izkututzen ziran. Kruzadak, Eliz Gerrateak, ainbat odol ixurtze, Erresuma batzuekiko Eliz-loturak, Ebanjelioarekin ain aserre eta urrutit dauden gertakariak izan arren, ez zitzaizkigun agertzen ain kondenagarri. Inkisizioa bera ere... Elizarena baiño erru aundiagoa zen Estadu Katolikoena.

Egiaren eguna Batikanoko Batzar Nagusiak ekarri zigula, esango nuke. Askatasun eguzkia Batzar Nagusitik irten zen; Batikanoko Jauntxoek argesi gaitzetsi eta kondenatzeari uko egin zituen. Teologoak, beren sentipen eta iritziak, lotsa galduz, mundu guziaren aurrean agertzen asi ziran; Histori egileak, gauzak, beren ustetan, izan ziren bezela, askatasun osoz, esateari eman zituen.

Ostiral Santu Egunean, zapiz estalitako Kristo, piskanaka larru gorrian gurutzetik zintzilika erakusten zaigun bezala, ain apain eta xarmanta beti ezagutu genuen Eliza, piskanaka, billuzirik begien aurrean utzi ziguten. Ez zan ez, leen ezagutu genuen Ama pullit ura gure Eliza. Estalki eta tapakirik gabe utzi zuten, an agertu ziren bere zauriak, bere utsegiteak, bere pekatuak. Batzar Nagusiak adierazi bezala, Eliza pekataria zen, gizon pekatariak osatua, beti eraberritze-koa, egun guziz Jaunagana bihurtu bearrekoa.

Andik aurrera Eliz pekatari ura ez zen kristau batzuentzat ain maitagarri eta Artaburuk bere Kaxilda itsusiari egin ziona, kristau askok egin zioten Elizari: Beren maitasuna ukatu eta bere bahesetik ies egin.

—oOo—

Kaxildak ez zuen guzia itxusi. Gizona benetan zoriontsu egiteko doaez apaindua zegoen. Kaxildaren itxuskeriak ikusteko baizik ez zuen izan ordea bere begi-bista Artaburuk. Begi bakarra, baiña Artaburuganako maite mitez betetako begia. Gezurrezko ortzez osatutako aoz, baiña maitasun itz jariako zegoen iturri gozoa. Buru soilla, baiña adimenez arka eta gizona zoriontsu egin aal izateko pentsakizun eta zentzuz bete. Eta, bere biotza? Gozoa, barka errexakoa, errukitsua eta maitearen alde itzeke prest zegoena. Bai, bai, bere itsuskerien gainetik aparteko doaez apaindua zegoen Kaxilda. Ez zuen asmatu Artaburuk Kaxildari ies egin zionean. Kaxilda utzi zuanean, bere zoriona ere utzi egin zuan Artaburuk.

Eliza utzi duten batek baiño geiagok begiratu zabala egin izan ba-liote beren Elizari. Elizaren pekatuetan bakarrik kokatu izan ez ba-lituzte beren begiak. Guzia ez dela Elizan ez eder eta ez itxusi ez gaizto eta ez santu... Baiña urrengoan jarraituko dut.

AROSTEGITAR JOK

NORK KUKURRUKU!!!???

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian



# ELIZAREN BERRI



Guman, Pinochet, Merina eta Mendoza militarrek, Santiagoko katedraletik erteterakoan, irailaren 19-an

## Txile eta Eliza

«Besteren minak, logure begitan» dio esakerak. Egia da. Ez haatik beti, Txilen gertatuak jende asko hunkitu du; besterik ezean, eta urrundik bada ere, guztioi dagokigun arazoa delako. Ez horixe. Ezin esan, txiletarren minak sogor utzi gaituenik.

Horren frogatzat hor dauzka-gu hortik zehar egin diren protesta agerpenak. Frantzian-eta, langileen sindikatoek lan utzialdiak eta diru bilketak aldarrikatu dituzte. Izango da «hil da gero salda ber» dioenik. Egia. Laguntza eta eskua luzatzea lehenago behar zen; Allende lokarria lepoan zuela zegoen-an. Baina, ez da xedea hilik, gizon bat munduan deino.

Bego orain arte esana, ondorengo idazkia ez dudala hotz-hotzean emana adierazteko, bihotza eskuan nuela baizik.

### 1.—ELIZA ALLENDE-REN DENBORAN

«Ez dakit ni ote naizen zahartu dena; baina zuek ondotox aldatu zarete» esaten zien Fidel Castrok Txileko apaiz batzuei 1971ean.

Bai, Katolikoak zerbait aldatuak dituzu munduan zehar. Alderdi politiko gehienetan aurkituko dituzu. Ez da antzinako konturik: ez da apaizari botoa nori eman eskatu beharrik.

Hori, Txilen, esan dezakegu, neurri handiagora gertatzen dela. Txilen katolikoak edozein alderditan aurkitzen dituzu: eskuin-eskuinekoan, eskuinekoan, erdikoan (Demokrazia kristauan), ezkerrekoan (MAPU eta Ezker kristauan), ezker-ezkerrekoan (MIR delakoa).

«Ez da kontuan hartzen, katologikoengan aurkitzen den iraultza legamia» esaten zion Allende Debray-ri. Bai, Chonchol (garai batetako nekazari ministroa) bezalako kristauak, konbentziturik zeuden kristautasunak bere baitan daraman iraultza haziaz.

Halaz ere, katoliko bezala agertzen zirenetatik jendetzarik handiena, Batasun Herrikoiko edo Unidad Popular-raren aurrez aurre gertatu zen Txilen. Apaizen artean nabari zen hori, batez ere: zenbait (oso gutxi) eskuin-eskuindar agertzen zen; talde handi handi bat demokrazia kristauaren aldeko, eta % 15 edo, Unidad Popular-

-raren aldeko (azken hauetatik, 200 edo, «sozialismoaren aldeko kristau mugimenduari» atxikiak). Mugimendu honek dudarik ez du, Txileko gizartea, Eliza bera barne delarik, «aurkako interesak dituzten giza-mailetan zatiturik dagoela».

Jakina, ez da hori gotzaien pentsamodua. Dena den, gotzaien ere, agerian aldarrikatu du Txileko gizartearen aldatu beharra. Baina, gotzaien uestez, nazio guztiak «familia» bat egin behar du. Azkenik, alabaina, kristauen politika pluralismoa aldarrikatzen du goi jerarkiari.

1970ean, Allende agintera (hein batetako agintera, alazango!) iristean, Santiagoko artzapeziku-kardenalak Te Deum abesten du. Ondorenean ere, zenbait herri-zalaparta nabaritzean, hauteskundeetan ateratakoari nen egin behar zaiola aldarrikatuko du behin eta berri. Txileko gotzaineriak mitarkadaren kezka bizi agertu du Allenderen agintealdi guztian.

Halere, bazuen gotzaineriak halako koloka bat bere baitan. Allende hartutako bideari ezin atxiki guzti, eta halere, lege-bidea ahokatzan herriari, eta apaizei beraiei ere.

Hoztasunik handiena azken hilabetetako zuten. Joan den martxoan eskola-lege berria kaleratu zenean, «Kezkatsun» gara Estaduaren absolutismoarako joeraren aurrean, eskuhartze oro bazterten duenaren aurrean», idazten zuten Txile erdi-eskualdeko gotzaiak. Eta sozialismoa eta kapitalismoa berdinkatzen zituzten: «absoluto bihurtzen diren sistema guztiak...».

Hoztasun hori eta guzti, honel azioen gotzaineriak azken uztailaren 16ean: «ez dadila isur Kristoren odolik sendido arteko gerlax». Eta kristau guztiak egun bateko otoitzera gonbidatzen dituzte aurrean dakusten gerla arriskua aldentzekotan. Ez dute kritikarik inoiz «aberraren goi erresponsableen» kontra. Hain aurrera joateko, esan behar da, Txileko Elizak historia luzea zuela aurrerapen giroan.

Eta egun?

### 2.—ELIZA ALLENDE-REN ONDOREN.

Allende erori da. Tamalaz. Borrokan erori da. Eta milita-

rrak nagusi.

Ihes egin dutenek esanen dигute: «Geure begiz ikusi dugu, 400 edo 500 preso, hegeitamar-naka edo berrogeinaka fusilatzen estadio «Nazionalean»; hantxe geunden geurok ere preso». Eta antzeko zenbat barrabaskeria! Herriak «napalm- ez bonbardeatzeraino. Inork ez daki zenbat hil diren. Milaka asko, nolanahi.

Militarrek ez dute inongo kezkarik, ez nornahi preso edukitzeko, ez torturatzeko, ez hiltzeko. Gauza baten kezka dute: munduaren aurrean itxura ona egin nahi dute.

Hor dago zerbait egin nahi dutenen lanbidea. Hor legoke Elizaren egitekoa. Badira hortik zehar protestarik zabaldu duten kristau elkarteak. Baina, gauza nabaria, Batikanoren isiltasuna da. Batek baino gehiagok esango du: pelikula zoro bat bazterteza denean, badu indarrik, eta horrelako militar-keriaren aurrean tutik ez.

«Justitia et Pax» delako batzordeak berak, Aita Sainduari zuzenduriko kartan, VI Paulok Irailaren 16an Txileko eta Mozambikeko gertaerez egindako aipamena onartzen du; baina gertaera horiei buruz Elizaren ikusmodua konkretatzen eskatzen dio.

Hondo-hondoan, arazo hori bera ukitzen du Turingo Pellegrino artzapeziku kardenalak, Dom Franzoni-ri (Erromako San Pablo Abatetxeo Abate izandakoari) zuzenduriko kartan. Franzoniren karta sonatua onartzen du erabat; denok saiatu behar genduke —esaten dio— gizartea zainetik aldatzen; Eliza beharturik dago gaitza askatasuna eta objektibitate osoz salatzeri. Honela jarraitzen du: «Sarritan, aginte politiko eta ekonomikoari loturik egoteak eragozten dio Elizari salaketa hori egitea. Ondo egin duzu arazo hau harrotzeaz. Isiltasuna edo hizkeria diplomatikoa, zentzurik okerrekoa (behar bada isiltasuna bera baino okerragoa): horixe da saria, Elizak bere askatasuna aukeratzen ez dakienean; izan ere, askatasun horrek laguntza eta pribilegio orori uko egitea eskatuko bait luke...».

Bai, Gakoa hor dago. Ebanjelioak dioenaren kontra, bi nagusiei zerbitu nahi batera. Egiaz, ordea, bakarrari zerbitzen: kainoiak eta dirua bere esku dituenari.

AMUNSA

# GALES-KO ZENBAKIAK ARGIA?

Orain dela sei bat hilabete mintzatu nintzen orrialde hauetan Gales-ko arazoaz; eta «kimierazko irakaskintza aztertu nuen orduan bereziki («Galestarrak aurreruntz»).

Bi gertakari eragilek bultzatzen naute berriro gai hori gaur aipatzera.

Alde batetik, «Planet» galestar aldizkariaren zuzendaria den Ned Thomas adiskidearen ikus-tamenak; geure artean izan dugu aste hauetan, eta aberasgarri izan zaizkigu haren albisteak eta iritziak.

Eta, beste alde batetik, egun hauetantxe zabaldu diren zenbaki batzuek, Ned Thomas-ek berak bere «The Welsh Extremist» liburu mamitsuan aipatzen zuen zenbakia (650.000) ttipituz, orain 542.000 «kimridun»en kopurua ezagutarazi baita, Gales-ko jendaketa guztiaren arabera (2.725.000 biztanle guztira), % 20,8 ematen du horrek, beraz; bosten bat.

Gauza ezaguna denez, eta Euskal Herriak Hegoaldean ezagutu duenez bestaldera, Gales-en ez bide da ikusi hizkuntza-mugaren atzerape-nik, Gales-ko Ekaldean ez bada, eta txikia. Gales-en Cardiff (Caerdydd hobe, Galestarrakiko errespetuz) anglestu da aurrenik, baita herrialdeko ikatz-miatzak. Hiri koskorak anglestu dira segidan; eta fenomeno aurrera doa gaur herriska txikietan barrena. Hizkuntzaren arabera muga guti mogiturik ere, beraz, *barne-tik* arrotzu da Gales; Zuberoako alderdian edo bezalatsu.

Nahasian bimintzaduna den gizarte horri buruz, hortaz, bete-betean erabil daitezke matematikazko azterpideak. Erabiliak ditut nik Z. ARGIA-n bertan: ikus «Matematika eta erderomanoak», orain dela zazpi hilabete argitaratua; eta, Gales-ko berrien bitartez argi pitin bat egiteko asmotan, berriz erabiliko ditut gaurkoan.

Artikulu haren ondorioa duzu 2. irudian ematen dudana diagrama. Alegia, euskaldun/erdaldun mordo batetan, eta euskaldun guztiak erdaraz ere badakitela emanda, % 10 erdaldun eta % 90 euskaldun egokituz gero, % 65 kasutan baizik ez da euskara erabiliko. Bide beretik, % 40 erdaldun eta % 60 euskaldun, % 12 kasutan baizik ez euskaraz; eta % 60 erdaldun baldin badago, % 5 kasutan euskaraz, eta % 95-tan erdaraz.

Zenbaki bildurgarri hauek, denaz gain, matematikaren arabera eta hozki lortzen diren zenbakiak dira. Psikologiako, ekonomiazko, eta beste anitz motatako arrazoin gordeek, bildurgarriago egingo lituzkete zenbakiok; eta lortzen den diagrama oraino ere beltzago izango litzaioke galtzen ari den hizkuntzari.

Bego hori horretan, dena dela.

Zer ematen du Gales-i buruz? Horra hor, 1. irudian, bi makurkiok. Goikoa «kimri» hiztunen kopuruaren arabera marraztua da; eta behekoak, Gales-ko pratikan, ikertzaile edo entzule erne batek neurtuko lukeena adierazten du. Baserrietara ez joatekotan, beraz, ingles-itxura du Gales-ek gaurdanik: oro har, elkarriketarik % 2 edo baizik ez kimrieraz...

Londres-ko gobernuak telebistan uzten duen denborak, horrela, kanpotik ikusia, aski eta sobera ere dirudi: astean 12 ordu (gogotik hartuko genuke guk erdia, gizajook!). Nola uler-tuko, beraz, galestarrak gero eta maizako (Ned Thomasek berak ere berdin, aitortu digunez) telebistaren zerga ez ordaintzea, eta hauzitara eramanez izatea? Kimriera «hila» baitirudi ka-lean!

Etnia ukatu guztietan gertakari berberak eta bitxikeria berbe rak gertatzen, ordea...

Jendea gero eta gogorrago omen dator. Abertzaleasuna gero eta azkarrago batez ere gazteen artean ikasleen artean; eta baserriarren artean baino ere (hizkuntzaz galestar), berriki anglestutako eskualdeetan. Kimri-tasunari eutsi nahia kalean itsasten da, ez baserrietan.

Laboristen aspaldiko kabia batetan, horrela, 3.000 mozatatik 14.000-tara igaro dira abertzaleak hiru urtetan.

Abertzaleen Alderdi zaharra («Plaid Cymru» delakoa, 1925an sortua, eta legearen barruan jokatzaren aldekoa) indarra galtzen ari da gazteen artean. Unibertsitateetan, Ned Thomas-ek azaldu digunez, % 90 dira gaur abertzale. Hizkuntzaren inportantiaz ongi jabeturik (kimririk gabeko Gales-ik ez dago, gazteen iritziz) hizkuntza ikasteari eman zaizkio ia denok: bazekitenak hobetzeko, eta ez zekitenak mintzatzeko gauza izateko. Baina «Plaid Cymru» delakoan ez sinetsirik, «Cymdeithas yr Iaith Gymraeg» organizazioan sartu dira (Welsh Language Society, Kimri Hizkuntzaren Elkar-tea). N. Thomasek dionez talde berri hau, 1962-an sortua, ez da, izan, «politikoa»; *etnikoa* baita, eta alde honetatik, Thomas beti mintzo, besteak baino sakonkiago politikan ari. Bultzatzaileen artean Gales-ko «gurutzat» (= irakasle nagusitzat) har daitekeen jaun zahar bat: Saunder Lewis; idazle ona omen, 1925an «Plaid Cymru»ren sorkide izana; eta gaur, aspertuta, etsita, legetik at eramandako politikabide gogorragoren bultzatzaile.


«Eta, ikasle horien artean, sozialismoaz zer?», galdetu diot nik brauki. Erantzunak harritu egin nau; baina N. Thomasek eman bezala bir-ematen dizuet nik: Ez dago Gales —esan digu— Europako giro errabiatuan inundi ere. Galesko gazteak pragmatikoak dira politika-arazoetan; eta ideologietan ez dute sinesten. Zuek guztiok, berriz, Lurrandian, ideologiatan murgildurik atxematzen zaituztegu. Gure herria laborista da aspaldianik, eta ezkertarra. Baina Labour Party-ren angleskeria eta geldikeria salatzen dira bakarrik. Denok gara han, gutxi gora behera bederen, sozialista. Ene aita bera mia-herriko seme zen. Galestar burgesiarik ez dugu, dena dela: ikatz-miatzak eta galtzairu-lantegiak nazionalizaturik daude antzinatik. Europako giroa, horrela, bitxi gertatzen zaigu gure. Eta gure gazteei ere bai».

Indarka hasteko gogoa omen dute banaka batzuek. Gales guztian baserriak erosi dituzten ingles aberatsen bizilekuak erretzen hasi nahi lukete. Baina gutxi dira, oso gutxi; eta herriak ez omen luke jokabide hori onartuko. John Jenkins hamar urtetako gartzelaldia betetzen ari da; egia da. Baina bere buruz ari omen zen bortxakerian. 1969ko Swansea-ko hauzia, dena dela, ez da ahaztu: Gales-ko Armada Izkutua-ren burukideena, alegia. Eta Saunder Lewis-ek berak aski garbiki laguntzen bide ditu, bere itzalaz bederen, Plaid Cymru nola edo hala gaintu nahi dutenak oro.


Gales-tikako berriak, horrela, jakingarri beti. Zergatik ez gomendatuko nik, beraz, laister agertuko den «The Welsh Language Today» liburua? Hor dituzte irakurleak, Ned Thomas-ena barne, hamabost artikulu Galesko hizkuntza-egoeraz. Eta besterik nahi izanez gero, hor dago Ned Thomas-en «The Welsh Extremist» liburua ere. Nik aginduta: ez zaio inori damutuko.

Zerck hauta, beraz.

LARRESORO



1. irudia



2. irudia

